

Arrasate

P R E S S

1996ko
Matxoak 8
311. zenb.



Emakumea eta berdintasuna
Zintzilik dagoen gaia



Zergatik, pampox?

Arantxa Urretabizkaiaarena

Azerre Teatroa



Amaia Antzokian

Martxoaren 9an (larunbata) • Gaueko 10.30etan
Sarrera: 800 pta. (Gazte-Txartelarekin: 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hauteskunde bixamona

Ezin esan hauteskunde kanpaina oso interesgarria izan denik. Aznarrek gehiengo erabatekoa lortuko ote zuen eta Felipe noraino jausiko zen izan dira hizpide nagusiak. Idigoras eta bideoa ustekabe bakarra. Herrian ekitaldirik apenas, kartel gutxi, girorik ez.

Eta emaitzak ere paretsu joan dira. Herrian, aurrekoen antzera. Madrilgo oihartzunari esker, sozialistak, popularrak eta IU gora. Hiruren artean sei mila boto pasatxo. Madrilgo oihartzunaren kulpaz, HB eta EA behera. EAJren igoera ezuste bakarra. Hiruren artean ia zortzi mila boto. Batuketak beste era batera egitea ere libre da, noski.

Autonomia Elkartean, sozialistek galdutako bi diputatuak, bat popularrak eta bestea IUK irabazi dituzte. Nafarroan UPNk galdu duena, IUK lortu. Alliren porrota sorpresa bakarra.

Eta Estatuan, Aznarrek ia bibotea galdu du hartu duen sustoaz. Lehen Felipe zegoen tankeran geratu da,

motz, eta guztiak kontra dituela. Hauteskunde ondoren ez diot oraindik irribarre zatar hori ikusi. Felipe, berriz, lasai, galdu bai baino ez da jausi, lehengo kontuak estaltzeko moduan gelditu da behintzat. Eta berriro Guerrarekin adiskidetuko balitz, ez nuke Aznarren tokian egon nahi. Lehengo Suarez harek badaki zerbait.

Txantxetan ibiltzeko beste ematen du, baina txiste moduan nahiago dut Mafaldaren hura. Eskolan andereñoa ari zitzaien "mi mama me ama, mi mama me mima" ariketarekin eta non Mafalda zutitzen den eta eskua emanaz esaten dion: "Zorionak andereño, zorte handia duzu zure amarekin. Eta orain irakutsiko al diguzu zerbait benetan inportantea?"

Hauteskunde bixamonean, hauxe da sinatzen duen Mafalda honek politikoei dioena: "Zorionak, denek irabazi duzue. Eta orain, ekingo al diegu herri honen benetako arazoei?"

MIKEL IRIZAR

**I
R
T
A
B
E
R
N
A
T
I**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kàlea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



Azaleko argazkia: Jabier Ozaeta

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

••••• Martxoak 8, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna

Berriro ere martxoaren 8an egin dugu tril, bidegurutze honetan, gure beharri-zanei, gure urratuei, gure eskubideei begira gaudela... zertan egin dugun aurrera ikusteko... eta ikusten dugu, Intsumisioa alderantz doan gure sendotasunak ez duela ohiartzunik izan gure gizartean, estutu, menperatu eta gure bizitzaren subjektu ez izatera baldintzatzen gaituen egitura patriarkala duen gure gizartean.

Gaurko egunean gizarte kapitalista eta patriarkala da Euskal Herriko errealitatea, eta gizarte horretan gainontzekoen bizitzaren euskarri, tranpolin, ezkutu izaten jarraitzen du euskal emakume gehienek eginkizunak, gizonen menpekotasun ekonomikoan eta afektiboan, ondorengoaren kontrola izateko aukerarik gabe, aukera sexualik gabe eta gizartean botoa emateko eskubidearekin doi-doi. Irainduta gaude gure izanari dagokionean, jakintza zentroetatik, komunikabideetatik, kulturatik, informaziotik baztertu egin gaituzte. Besteen erabakien objektu izaten jarraitzen dugu.

Gure duintasuna garatu behar dugu, sumisioa kanporatzeko, emakumeendako gerra da patriarkatua. Pertsona bati pertsona izateko aukera ukatzea baino indarkeria handiagorik ez dago.

Heldu da gure ordua, antolatzeke, gure autoestimaren eta gure autonomiaren oinarriak ezartzeko. Gure independentzia ekonomiko eta afektiboa bultzatu behar ditugu. Gure aldarrikapenak letra irakurri behar ditugu, herriaren kontrabotereak urratsez urrats eta egunetik

egunera egiten duen Euskal Herri honetan, eta horrek guztiak berdintasuneko gizartea erdituko du, elkarlanean eta lankidetzan jardungo duen gizartea, antipatriarkala, sozialista eta euskalduna izango den gizartea.

Zelan antolatu eta zelan borrokatu, halako emaitzak lortuko ditugu. Garbi dago inork ez dizkigula gure eskubideak erregelatu, ez Europan, ez Estatu Espainiarrean, ezta gaurko egunean Euskal Herrian ditugun erakundee-tan ere. EZ! haien interesak defendatzea... gu zapaltzearen gainetik gaude eta.

Egizan (Arrasate)

••••• Mila esker Gaztetxekoei

Arrasateko Orkatz Skaut Taldeak eskutitz honen bitartez eskerrak eman nahi dizkio Arrasateko Gaztetxeari eta bertan lanean ari diren gazteei, eman diguten laguntza ekonomikoarengatik.

Badakizue, Arrasateko Gaztetxeak azken bi urteotan Azoka Alternatiboa antolatu duela eta bertan ateratako irabaziak, diru beharrean dauden taldeen artea banatzen dutela. Aurten guri eman digute eta horregatik eskerrik beronenak eman nahi dizkiegu.

ORKATZ SKAUT TALDEA

••••• Komunikabideak eta independentzia

Azken gertakarien inguruan salaketa gogor bat egitea da idatzi honen funtsa,

salaketa gogorra ETB, TVE, El Mundo, ABC, El Diario Vasco, Antena 3 eta egunez egun herri honen errealitatea eta herri honek estatu espainiarrekin daukan gatazka- ren funtsa itxuraldatzen duten komunikabide guztien aurka.

ETA euskal erakunde armatuak egindako azken ekintzen inguruan, zeintzutan Ortega Lara Kartzeleroa arrestatua izan den eta Fernando Múgica (PSOEko burua 80. hamarkadan) eta Francisco Tomás y Valiente (Tribunal konstituzionaleko presidente ohia eta Estatu Kontseiluko partaidea) hilik suertatu diren, komunikabideek Euskal Herriak autodeterminatzeko daukan eskubidea suntsitzea eta proiektu independentista zapaltzea izan dute ardatz nagusitatzat, Estatu espainiarreko botere guztiekin batera (PNV eta EA barne). Pertsona horien izaera "demokratikoa" gorai patuz batetik, Andoain herria eta inguruneak militarki okupatu, 8 gazte atxilotu eta irainduz, ezker abertzaleko erakunde guztien ilegalizazioa eta suntsiketa bultzatuz, ETA erakundearen bideoa bahituz, Idigoras eta Aoi atxilotuz, orohar euren ezintasuna eta jokaera errepresibo eta antidemokratikoa behin eta berriz erakutsiz.

Honen aurrean gauza batzuk dira argitu behar direnak:

1- Herri honi eta ezker abertzaleari suertatu zaio benetan gatazka honek ekarri duen errepresio eta min gehiena jasatea, bestela ikustea daukagu nola egunero egiten diren mobilizazioak euskal presoak Euskal Herriratzearen alde honek dakarren injustiziak bultzatuta, hori bai, komunikabideen ixiltasunarekin.

2- Ezker abertzalea eta bereziki ETA izan da erakunde bakarra mahai gainean jartzen gatazka honen irtenbiderako proposamena, non

benetan eta sustraitik mozten diren gatazka honen zergatiak, hau da, demokrazia eza edo gabezia.

3- Askotan gaztedia izaten dela gehien jasaten duena estatu honen gorrotoa bere maila guztietan benetan injustiziaren gakoak errotik borrokatzen dituelako.

4- Jakin dezatela bai komunikabide, bai politiko, etab.ek ez garela euren dinamikan behin eta berriro sartuko, baina erantzuna izango dutela gure eguneroko askatasunaren aldeko (maila guztietan) lanarekin, euren gezur eta errepresioari.

Hau dela eta, gaztediari eta herri guztiari deitzen diogu bai egun hauetan (hauteskundeetan) baita gainontzeko egun guztietan ere borroka egin dezaten gogor eta koherentziaz benetan injustizia guztiak desagertu arte.


Adi egon hurrengo egunetako mobilizazioei!! Jo ta ke!!

ARRASATEKO JARRAI

Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatze ailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datoren gutunik ez dela argitaratuko.

Emakumea diskriminatuta dago?



Eladio Calvo
Jubilatua
(60 urte)

Oraindik bai. Emakumeendako zailagoa izaten da lana aurkitzea, eta etxeko lanetan ere gutxi laguntzen dugu gizonezkook.



Ines Murillo
Langilea
(36 urte)

Orain gutxiago, lehen gehiago igartzen zen diskriminazioa. Asko aurreratu da alor horretan.



Rafael Nafarrate
Langilea
(38 urte)

Lehen baino egoera hobean, baina oraindik ez daude gizonezkoen parean. Langa-bezia datuei begiratu gero, gehienak emakumeak direla ikusten da eta horrek zeozer esan nahiko du.



Elena Garcia
Langilea
(38 urte)

Erabat diskriminatuta gauda. Gaur egungo gizonezkoek berdintasunaren alde dardela esaten dute, baina ekin-tzetan ikusten da ez dela horrela.




Jabier Bravo
Langilea
(25 urte)

Lehenago baino gutxiago baina oraindik geratzen da zer aurreratu. Lan munduan, adibidez, emakumea gutxi baloratuta dago.



Maite Diez
Ikaslea
(16 urte)

Bai, uste dut baietz. Matxismo asko dago oraindik. Lanpostu onenak, adibidez, gizonezkoek eskuratzen dituzte.



Jose Antonio Nuño
Jubilatua
(71 urte)

Ez dut uste, emakumea asko aldatu da. Lehen bazegoen diskriminazioa baina orain askoz ere gutxiago.



Jesusa Retolaza
Etxekoandrea
(49 urte)

Nik uste dut baietz. Gainera, gero eta diskriminatua-goak gaudela iruditzen zait.

ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.


SEGUROS
BILBAO

- Bizitza
- Etxebizitza
- Autoa
- Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasas900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 8
 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
 Egunez eta gauzez: Guallar, Bergara.

Larunbata 9
 10ak arte: Español, Iturriotz.
 Egunez eta gauzez: Estella, Bergara.

Igandea 10
 10ak arte: Corcuera, Musakola.
 Egunez eta gauzez: Estella, Bergara.

Astelehena 11
 10ak arte: Irizar, Erguin.
 Egunez eta gauzez: Mozos, Musakola.

Asteartea 12
 10ak arte: Amezua, Santamaina.
 Egunez eta gauzez: Camacho, Bergara.

Asteazkena 13
 10ak arte: Ruiz, Maala.
 Egunez eta gauzez: Puy, Bergara.

Osteguna 14
 10ak arte: Morales, San Andres.
 Egunez eta gauzez: Cuellar, Bergara.

8 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Carrington" 7etan eta 10etan.
- **EMAKUMEAREN EGUNA**
 Manifestazioa arratsaldeko 7.30etan Sebero Altube plazan. Herri afaria Egizanek antolatuta Arrano elkartearen gaueko 9.30etan. Gaueko 10.30etan "Beti prest" taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

KINTOEN BAZKARIA

1934an jaiotako kintoek bazkaria izango dute martxoaren 30ean. Bertara joan nahi duzenok izena eman Bengoa tabernan martxoaren 28a baino lehen. Izene-matea 2.000 pta.



TRIALSIN TXAPELKETA UDALAN

Gipuzkoako trialsin txapelketa martxoaren 10ean, igandea, goizeko 10.30etan. Maila dene-tan jokatu da txapelketa. Arrasatek hiru ordezkari izango ditu: Nestor Kortabarria, Xabier Kortabarria eta Erik Jimenez

9 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "El Cerdito valiente" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **LUĐOTEKA IBILTARIA**
 Txatxilipurdiko ludoteka ibiltaria Musakolako Alkatetzan goizeko 11etatik ordubate arte. OHOKo lehen mailatik 8. maila arteko ikasleei zuzenduta.
- **ANTZERKIA ALMEN IKASTOLAN**
 "Ai Ama, hau panorama!" antzez-lana arratsaldeko 5etan euskaraz eta 7etan gazte-leraz Almeneko aretoan. Almen ikastolako guraso eta irakasleek egindako antzez-lana.
- **ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**
 Agerre antzerki taldearen Zergatik Panpox? antzez-lana Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta.

10 IGANDEA

- **ZINEA**
 "El cerdito valiente" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **TRIALSIN TXAPELKETA UDALAN**
 Goizeko 10.30etan hasita Udalan.
- **TRONBOI KONTZERTUA**
 Arrasateko Brasss tronboi taldearen kontzertua arratsaldeko 7etan Arrasate Musikaleko areto nagusian. Arrasate Musikalek antolatuta.

TAICHI IKASTAROA

Eskoriatzako Magisteritza eskolako areto gelan Taichi ikastaroa emango da hilabete bakoitzeko bigarren zapatuan. Hiru ordu jarraian arratsaldeko 4etatik 7ak arte. Emalea Valentin Zurbano. Informazio gehiagorako deitu 71 41 91 zenbakia.

"BADOK HAMAHIRU" SAIO BERRIA IRRATIAN

Arrasate irratian "Badok hamahiru" saio berria Iban Aranzabalek gidatuta. Saioan euskal kantagintza-ren historia eta bitxikeriak azalduko dira. Gaueko 9etan izango da Arrasate Irratian FMko 107.7an.

11 ASTELEHENA

ZINEA

"El cerdito valiente" 7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

Gaia: "Gaixoa eta bere sintomak". Hizlariak: Jose Maria Delgado, Gurutzetako ospitaleko medikua. Arratsaldeko 7etan San Andresko Parrokiko lokaletan.

ODOL EMATEA

Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

KUBARI BURUZKO HITZALDIA

Gaia: Kuba. Hitzaldian bideo emanaldia izango da. Monterronen arratsaldeko 7.30etan. Astebukaeran Kubari buruzko argazki erakusketa ikusgai Biona, Irati, Etxerat, Jaizale, Iturriotz, Iluntze tabernetan. Askapenak antolatuta.

12 ASTEARTEA

ZINEA

"El cerdito valiente" 7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

Gaia: "Familia eta gaixo edade-tuak". Hizlaria: Maite Olaizola sendagilea. Arratsaldeko 7etan San Andresko Parrokiko lokaletan.

ODOL EMATEA

Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

TXATXILIPURDI ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

Arratsaldeko 7etan Txatxilipurdiko lokalean. Batzar nagusia bukatzerakoan luntxa egongo da.

SAN VIATORREN HITZALDIA

Gaia: Familia gaur egun. Hizlaria Iñaki Beristain, Frantziskotarra. San Viator ikastolako mediatekan arratsaldeko 6etan. Asteazkenean hitzaldia gazteleraz emango da.

13 ASTEAZKENA

HITZALDIA

Gaia: "Heriotza eta edadetu gaixoa". Hizlaria: Maria Jesus Goikoetxea, Aita Menni Ospitaleko sendagilea. Arratsaldeko 7etan. San Andresko Parrokiko lokaletan.

PEKINGO KONFERENTZIA-RI BURUZKO HITZALDIA

Gaia: Pekingo konferentzia. Emaleak: Juana Aranguren eta Carmen Perez. Arratsaldeko 4etan Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruan.

14 OSTEGUNA

EMAKUME ZINEGILEAK

"Sexo oral" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta. Kultura eta emakume sailek antolatuta.

EKINEN HITZALDIA

Gaia: "Emakumea eta komunikabideak". Arratsaldeko 7etan AEDko lokalean. Ekinak antolatuta.

HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIA

Gaia: "REM bukatzerakoan, zer irteera dute ikasleek?". Hizlaria: Elena Errasti, ikastolako ikasketa burua. REMeko 2. mailako ikasleen gurasoei zuzenduta. Ferixalekuko ikastolan arratsaldeko 6etan euskaraz eta 7etan gazteleraz.

ESKI IRTEERA BESAIDEREKIN

Martxoaren 16 eta 17an Pont D'Espagnera eski irteera Besaiderekin. Izenematea martxoaren 11 eta 12an arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.

EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

Mutilei zuzendutako euskal dantzen ikastaroa apirilaren 15ean hasiko da, astelehenero arratsaldeko 6.30etatik 7.30ak arte. 6 urtetik 10 urte bitarteko mutilentzat. Lore Gazteak dantza taldeak antolatuta.



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.
Lorazaintzako mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

“... Euskadiko CCOOri ez al dio axola ELA geldiarazteko Estatuko CCOOren botere zentralistan euskarritu beharrak? Hari horretatik tiratuz gero, Estatuko CCOOren ordezkagarritasun handiagora jo dezakegu, ELA-LABen hegemoniari aurre egiteko azken Hauteskunde Sindikaletan aukeraturiko ordezkarien gure %17 inguruko ordezkari-tza xumea nahikoa ez denean, eta hori sarritan gerta daiteke. Baina hori egiten badugu, zentralistak edo espainolistak kalifikazioak onartu beharko ditugu; irteerarik gabeko kontraesana da. Euskal sindikatua izateak herri honetan dugun ordezkari-tzarekin aritzea, berori hobetzea, gure kapitala eta irudi oldarkorra handitzea eta nahi ez dugun eta hasi ez dugun sindikatuen arteko zorigaiztoko guda honetan tinko irautea esan nahi du, baina Madrileko gure anaia zaharrari deitu gabe.

(...) Gure esku balego, dagokion finantzaketa Euskal Hitzarmenari lagatzeko eskatuko genioke FORCEMi; izan ere, aurreko argumentuen aldeko eta kontrako alderdiak kontuan hartuta, gure ustez bide hau baita etiko eta zintzoena”.

Juan Ramon Garai - Jesus Uzkudun, 1996-3-1.

Egunkaria

“Hozkailu egile korearrak Espainiako ekoizle garrantzitsuenari, Fagor Elektratesnari, egin dakioken kompetenziari dagokionez, Retegiren ustea da Daewook sektore euskaldunaren hornitzaileen kalitatea hobetuko duela. Gainera aipatu zuen Daewook lantegia Europan jartzea erabakiz gero, Fagorri kompetentzia Euskadin kokatuta bezala egingo liokeela”.

1996-3-6.



Zertarako eskatu diozue Mankomunitateari traste zaharrak ematea?

Deba Garaiko Mankomunitatearekin harremanetan jarri gara, inguru honetan traste zaharrak jasotzeko baimena eskatuz. Gure taldeak, Traperos De Emausek, traste zaharrak batu eta zahar berritzen ditu, ondoren prezio onean saldu ahal izateko. Era guztietako trasteak jasotzen ditugu: arropak, papera, altzariak, elektragailuak. Mankomunitateak hilean behin traste horiek bartzan dituzenez, guk geuk batzea proposatu diegu.



Jabier Pradini
Traperos de Emauseko partaidea

Trasteak konpontzeaz lan-gabezian dauden, eta arazo sozialen eraginez lana aurkitzeko arazoak dituzten langileak arduratzen dira. Horrela, eurei lan munduan sartzeko aukera ematen diegu. Bestalde, merke-merke saltzen dira konpondutako gauzak eta horrela, bizitza maila baxua dutenei ere oinarritzko gauzak erosteko aukera ematen diegu.

Era horretako eskariak estatuko hainbat tokitan egin ditugu eta lortutako emaitzak onak izan dira. Bilbon, Donostian, Gasteizen, Murtzian eta Sabadellen, adibidez, abian daude esperientziak.

Orain dela hogeitun urte hasi zen Euskadin Traperos de Emaus lanean baina taldea askoz ere lehenago sortu zen. 1949. urtean Parisen sortu zen taldea Le Pier apaizaren laguntzarekin. Apaiz horrek harrera etxea antolatu zuen, etxe barik zeudenei txoko bat emateko. Orduetik 400 talde inguru sortu dira mundu osoan eta taldeak ez du inongo ideologiarik.




AKELARRE
Gozotegia

ORAIN AKELARREN GOZARIAK GOIZEKO 7.30etatik AURRERA!

Gure betiko ohiturei tinko eutsiz



Txokolatzeko Pazko arraultzak



Karapaixoak

Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

Auzo-Laguni kalitate ziurtagiria eman

Auzo-Laguni ISO 9002 kalitate ziurtagiria eman diotela eta, joan den ostiralean prentsaurrekoa eman zuten kooperatibako arduradunek. Manuel Giner, gerentearen esanetan, nahiz eta kalitatearen inguruan presiorik jaso ez, orain dela hiru urte kalitatea hobetzeko neurriak hartzen hasi ziren. Gerentearen ustez, ziurtagiria lortzeak lasaitasuna eman- go die bezeroei.

Estatuan eta Euskadin elikadura alorrean ziurtagiria duen enpresa bakarra da Auzo-Lagun. Agiria lortu arren, kalitatearen alorrean lan egiten jarraituko du kooperatiba arrasatearrak.

Autoa erre

Joan den ostegunean, otsailaren 29an, auto bat erre zen Zigarrolan goizaldeko laurak aldera. Argitu gabeko arrazoiengatik Peugeot 106 markako autoa erre egin zen, eta ondorioz, ondoan zegoenak ere su hartu zuen baina ez zen gutziz erre. Sua zerk eragin zuen ikertzen ari da Ertzaintza.

Eskola publikoen erantzuna

Arrasateko Eskola Publikoek idatzia kaleratu zuten joan den ostiralean, Yolanda Perez de Arenazak ATBn esandakoei erantzuteko. Idatzian esaten zenez, eskola publikoetako arduradunek ez dute inoren etxean sartzeko asmorik eta ez diote inori ezer kendu nahi. Gainera, proiektuaren berri alderdiei ematerakoan HBren jarrera ezezkorrarekin harrituta geratu zirela jakinarazten zen. Perez de Arenazak, Hezkuntza

	Botoak	%
Hautesleak	20.305	100
Abstentzioa	5.826	28,69
PSE-EE	3.559	25,09
HB	3.046	21,47
EAJ-PNV	2.945	20,76
EA	1.907	13,44
PP	1.364	9,61
IU-EB	1.256	8,85

Arrasaten PSE-EE garaile

PSE-EE alderdiak lortu zituen boto gehien Arrasaten martxoaren 3ko hauteskundeetan. 93ko hauteskunde orokorrekin konparatuz, 153 boto galdu ditu baina udal hauteskundeekin alderatuz mila baino gehiago irabazi. Paco Garciak esan bezala, espero zuten lehenengo indarra izatea baina ez hainbeste boto irabaziko zutenik. EAJ, EB eta PPK bestalde, botoak irabazi dituzte eta HBk eta EAK galdu.

Normaltasun osoz burutu zen hauteskunde eguna eta abstentzioa %28,69koa izan zen.

Batzordeburuak, egindako adierazpenak, berriz, penagarriak eta maltzurkeriaz betetakoak iruditu zitzaizela esaten zen idatzian.

Masterra bukatu

Eskola Politeknikoak antolatutako V. produkzio masterrari amaiera ofiziala eman zitzaion joan den ostiralean. Amaiera ekitaldia Otalora Jauregian egin zen. Ekitaldira, masterrean parte hartu duten 20 kideak eta arduradunak hurbildu ziren.

Jende ugari Txominen omenaldian

Amaia antzokia bete egin zen joan den ostiralean, Txomin Iturberi egin zitzaion omenaldian. Aurkezle lana Xabier Zubizarretak bete zuen, eta Txominek "aurrera bolie" esaldia herria aurrera atera

behar zenean erabiltzen zuela esan zuen Zubizarretak. Bertsolarien ondoren, arrasatearrak agurtzeko Peixotok bidalitako bideoa izan zen ikusgai. Bideoa bukatutakoan, burua estalita zeramatan gazte batzuk eskenatokira igo zuten ETaren aldeko eta kale borrokaren aldeko bi pankarta zabalduz. Bukatze-ko hitzaldia eman zuen Karlos Rodriguezek, Mahai Nazionalako kideak.

Istripua

Joan den domekan, goizaldeko 6ak inguruan, istripua gertatu zen Otalora kalean. Auto bat beste karrilera pasatu zen eta handik zetorren beste bat jo zuen. Ondorioz, auto batek su hartu zuen baina ez zen handia izan. Gainera, sei lagun arinki zaurituta ospitalera eraman behar izan zituzten, eta beste bat

atxilotu zuten alkoholemia frogan positibo emateagatik.

Atxiloketak

Joan den ostegunetik zaptura bitartean zortzi gazte atxilotu zituen Ertzantzak, azkenaldian izan diren lapurretak direla eta. Gazte horiei lapurtutako hainbat gauza aurkitu diete ertzainek. Gazteak, 16 urtekoak, aske daude baina epailearen aurrean deklaratu beharko dute.

Ijitoak kanporatu

Asteartean zenbait ijito etorri zen berriz ere Zigarrolara. Ijito taldea hamaika furgoneta eta lau autotan etorri zen. Asko zirela ikustean, Zigarrolako bizilagunek udaltzainei deitu zieten.

Udaltzainek herrian geratzea debekatu zieten, dirua eskatzen ari zirelako eta hori debekatuta dagoelako, eta gainera, baimen barik aldizkaria saltzen ari zirelako. Eguerdirako alde egin zuten ijitoek.

JAIOTZAK

- Naia Zeziaga Sanchez. Otsailaren 21ean.
- Asier Delgado Garcia. 25ean.
- Eneko Gonzalez Moreno. 25ean.
- Xabier Nuñez Garcia. 28an.
- Eider Garro Letamendi. 29an.
- Iker Hervas Pavo. 29an.
- Aroa Calderón Novarbos. Martxoaren 3an.

HILDAKOAK

- Jose Luis Mendiaratx Elexpuru. Otsailaren 25ean. 63 urte.
- Jacinta Larrañaga Larrañaga. Martxoaren 1ean. 84 urte.
- Benigna Chocan Mediavilla. 3an. 90 urte.
- Jesus Etxebarria Arabaola. 3an. 71 urte.



* Julia Monge

Berdintasunaren bidean

Badira 20 urte Arrasateko Emakumeen Asanblada sortu zela. Beste leku batzuetan hasita zeuden eztabaiden berotasunean, emakume-talde bat elkartzeko hasi zen feminismoaz eta emakumeen zapalkuntzaz hitz egiteko. Gure lehen ekintza publikoak martxoaren 8a zela-eta egin ziren.

Orduz geroztik urte asko pasatu dira, hots, ibilbide luzea egin da, eta feminismoa egiteko era anitz eta ezberdineko esperientziak izateaz gain, gizartean eragin handia duen mugimendu zabal eta heterogeneo baten partaide izan gara.

Feminismoak bakarrik bizi ezin genuena elkarrekin sortzeko aukera eman digu. Emakumeok gure nahigabea eta egonezina beste emakume batzuekin konpartitzen hasi ginenean, ordura arte gutako bakoitzaren arazoa izan zena gizartearen arazo bihurtu genuen.

Atzerantz begiratu gero, hobetu egin dugu eta, beraz, emakume askoren bizitza ere aldatu egin da. Egia da beti ukatu egin zaizkigun eskubideak aitortzeko nolabaiteko kontzientzia dagoela gizartean. Legeak sexu-berdintasuna formalki onartzen du.

Baina egon diren aldaketak gorabehera, emakumeok bigarren mailakoak izaten jarraitzen dugu. Hortaz bide luzea geratzen da sexuen arteko berdintasuna lortzeko eta bitartean emakumeekiko diskriminazioak bizitzako esparru guztiak hartzen ditu.

• Lan-esparruan emakume

.....

“Feminismoa egiteko era anitz eta ezberdineko esperientziak izateaz gain, gizartean eragin handia duen mugimendu zabal eta heterogeneo baten partaide izan gara”

askok arazoak ditu alokairuzko lan-munduan sartzeko. Horietako askok ekonomia murgilduan egiten dute lan eta beste batzuek gizonezko lan-kideek baino alokairu edo soldata txikiagoak kobratzen dituzte balio berdineko lan-gatik.

Horretaz gain, alokairuzko lanean emakume ugari sartu den arren, oraindik beraien gain daude etxeko lan gehienak.

• Emakumeek jasaten duten biolentzia egoeran ez da aldaketa sakonik izan. Askok dira etxeko tratatu txarrak, sexu-erasoak eta bortxaketak jasaten dituztenak izaera antizko gizonengandik.

• Abortua ere ez da onartutako eskubidea. Kasu legaletan ere zailtasun handiak daude eta osasun-sare publikoan sartu gabe jarraitzen du.

• Berdintasunezko edozein sexu-aukeratarako eskubidea ere oraindik ez dute ez legeak ez gizarteak onartzen.

• Emakumeek gizartearen hainbat esparrutan duten parte-hartzea, gero eta handiagoa bada ere, minoritarioa izaten jarraitzen du.

Garbi dago asko geratzen dela egiteko. Azken 20 urteetan borroka feministaren bidez lortu ditugun aurrerapenak ez dizkigu inortxok ere oparitu, emakumeek esparru ezberdinetan burututako borrokaren emaitzak dira. Gure iritziz bide horri eutsi behar diogu, hau da, jarraitu behar dugu emakumearen zapalkuntza eta diskriminazioaren kontra.

* EMAKUMEEN

ASANBLADAKO PARTAIDEA

USTEAK USTE

IRABAZLEAK AGINDU DEZALA!

Horixe da alderdi sozialistak, irrifartxo ezin eutsita, Aznarri botatzen dion ordagoa. Legitimitateak horrela agintzen du, boto gehien botere gehien. Baina ez zaizkio gauzak oso erraz joango PPri gobernu taldea osatzeko. Taldea osatu lezake, baina sendoa eta iraunkorra? ez dut uste. Hortxe dago sozialista “galtzaileen” botere ezkutua.

Hauteskunde gauean, Madrilgo Genova kaleko pulpitotik, hitzegiten ari zen Aznarrek isladatzen zuen poza errena zen. Portzierto, prestatutako pedestal izugarri horrek elizak eta orain 40 urte agintari batek erabiltzen zituen handiak erien, demostrazioak etorri zitzaizkidan burura. Agintea goran eta herria behean zen orduko. Nahiz eta gaur egun praktikan gauzak asko aldatu ez diren, batzuk, zirt-zart, lehen eguna aprobetxatzea erabaki zuten horretarako. Horrek hotzikara sartu zidan gorputz osoan.

PPk gobernu osoa osatzeko orduan erantzunkizun handia eduki dezakela diote Europako Demokristauen bilkurak, baina honen barne dauden estatuko alderdien arteko desberdintasunak nabariak dira. Ura olioarekin nahasten hasiko ote dira? Agian egin daitekeela demostratuko digute, nork daki.

ION ALDANONDO

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Elektroinjekzio Zerbitzua 
ARRASATE KONPONKETAK
Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



JULIO CALLEJA

Senideak-ek ateratako logotipoa banatu zieten alderdiei astelehenean.

Senideak: "itxita zegoen atea zertxobait zabaldu zen asteleheneko plenoan"

Arrasateko Senideak elkarteak positiboki baloratu ditu asteleheneko plenoan entzundakoak. Plenoan alderdi bakoitzak presoan Euskal Herriratzearen inguruan duen iritzia eman zuen.

Felix Lopez, Senideak-eko kidearen berbetan, "ezin esan erabat baikor gaudenik, baina astelehenaz geroztik orain arte itxita egon den atea zertxobait zabaldu da, eta hori begi onez ikusten dugu". PSE-EE alderdiak, gutun baten bidez erantzungo ziela eta Senideak-ekin harremanak normalizatzearen aldekoak direla erantzun zuen plenoan. Lopezen esanetan, "ikusitako beharko da zer erantzuten duten eta hurbiltasun hori nola gauzatzen den". EAJk esandakoen inguruan ere iritzi ona du Senideak-ek, batez ere Instituciones Penitenciarias-i presoak Euskal Herrira ekar ditzala eskatzearen ardura Udalaren esku utzi zuelako. EAJk Monterroneko ekintzak salatzeke ateratu zuen idatzian euren

buruz esaten direnak, berriz, "harrituta" irakurri zituztela adierazi dute. "Eskutitzean mesede bat egin baligute bezala planteatzen da gaia, baina presoan egoera euren ardura politikoa ere bada".

"Hitzetatik ekintzetara pasatzea", horixe da Senideak-en ustez hemendik aurrera egin beharrekoa. Felix Lopezen esanetan, "oraindik lan handia geratzen da egiteko, eta Senideak-ek horretan jarraituko du.

Arrasateko Senideak elkarteak bestalde, logotipoa atera du presoan Euskal Herriratzea eskatzeko, eta astelehenen alderdi gutxiei bana banatu zien.

Senideak taldearen gaia eta beste hainbat ostiraleko plenoan aztertzekeak ziren, baina HB kenduta, gainontzekeak agertu ez zirenez, ostiralean ez zen plenorik egin. EAJ, PSE-EE, EA, EB eta PPK adierazi zuten Senideak-en gaia aztertzean istiluak egoteko aukera zegoelako erabaki zutela plenora ez joatea.

Gestoraren salaketa

Ertzantzaren jokaera salatzeke, Arrasateko Amnistia-aren Aldeko Batzordeak prentsaurrekoa eman zuen asteartean. Gestorako partaideen esanetan, joan den zapatuan presoan alde egin zuten manifestaldiaren ondoren Ertzantzak gogor jipoitu zituen. Argazkiak ere banatu zituzten, ertzaingoen jipoiek lagun batzuk zauritu zituztela erakusteko.

AEDk batzar orokorra egin

Urteko batzar orokorra egin zuen asteartean AED elkarteak. Iaz egindako ekintzen erreposoa egitean, 95ean gauza garrantzitsuak lortu, eta bazkidegoaren gaian erabaki garrantzitsuak hartu zirela azpimarratu zuten. Aurrera begira duten asmoen artean, enpresak euskalduntzeko lan-tegietara sarbide handiagoa izatea, gazteendako lokala egokitzea, eta beste kultura bat dutenekin elkarlana bultzatzea nabarmendu zituzten.

Abaroakoek batzar nagusia

Asteartean urteko batzarrak egin zuten Abarako bazkideek. Ekintzei dagokienez, orain dela gutxi abian jarri duten gimnasia ikastaroaren harrera ona azpimarratu zuten. Hala ere, edadueten parte hartzea txikia izaten dela adierazi zuten zuzendaritzako partaideek.

URRATS
AHOLKULARITZA
 CARIBAL 3
 Tfnoa: 79 87 74
 ARRASATE

lurrindegia *perfumeria*
ZARRAOA
 • Estetika kabinetea
 • Larruzko artikuluak
 • Bitxitegia
 • Opariak
 Kanpatorpea, 4
 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

ITSASKI
 ARRANDEGIA
 Arrain freskoa
 eta jaki izoztuak
 Uribe Auzoa
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 98 94

Enpresa Berritzaileen Zentruaren ardura bere gain hartu nahi du hirukoak

Lerro hauek idazterako orduan zer egingo duten oraindik jakinarazi ez bazuten ere, HB alderdiak aurreratu du EAJ eta PSE-EEk plenoan EBZari buruz hartutako erabakiaren inguruan zerbait egiteko asmoa duela.

Enpresa Berritzaileen Zentruaren jarraipen zuzena egiteko batzordea eratzea proposatu zuen EAJk asteleheneko plenoan, eta alderdi sozialistaren laguntzarekin onartu egin zen eskaria. Hala ere, zalantzan geratu zen lege aldetik batzordea eratzea posible ote zen. Horregatik, baliteke HB batzordearen balio eza frogatzen saiatzea.

Plenoan argi geratu zen legez batzorde informatiboa eratzeke aukera dagoela, bai-



Zerrendaz kanpo batzorde berezia eratzea eskatu zuen EAJk.

na kasu horretan alkatearen esku geratuko litzateke batzordeburua izendatzea. Hirukoak, berriz, batzordeko gidaritza eraman nahi du eta horretarako, Ignacio Jimeno ba-

tzordeko lehendakaria eta Isabel Gallastegi lehendakariordea izatea proposatu zuen. EAJk egindako eskariaren arabera, alderdi guztietako bozeramaleek izango lukete

batzordean parte hartzeko aukera. Bestalde, batzordeak EBZ-a eratu arte funtzionatuko lukeela adierazi zuten jeltzaleek, beraz, bi hilabeterako bizia izango luke.

Xabier Zubizarretak astelehenean azaldu zuenez, ez du EBZ-aren inguruko informazioirik gordetzeko asmorik, eta orain arte Hirigintza Batzordean eman dū gai horren inguruan egindako gestioak. Diktamenak egiteko aukerarik izango ez lukeen batzordea eratzea, gainera, arruntzia iruditzen zitzaiola adierazi zuen. Ezker Batua, berriz, etorkizuna izango lukeen batzordea eratzearen alde azaldu zen. Bozketan HBk eta EBak batzordea eratzearen aurka bozkatu zuten.



LORAMENDI



Eski ekipoen eskaintzak.

Txamarrak eta buzoak %30

Eski prakak %50

ESKULARRUAK, TXAPELAK ETA ESKIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA.



Akei itxi egingo denez, zaborren arazoari irtenbidea emateko neurri batzuk hartzea eskatu du EKIk.

EKlren planteamendua zaborren inguruan

EKIk prentsaurrekoa eman zuen atzo, ostegunean, zaborren inguruan duen iritzia eman eta hondakin solidoen gaiaz Zumarragan egin ziren jardunaldiak baloratzeko.

Jabier Abalderen, EKiko kidearen esanetan, "lehenik eta behin Gipuzkoako Diputazioaren jarrera goraiatu behar dugu. Bizkaikoak besterik gabe erraustegia egitea erabaki du, baina Gipuzkoakoak sentsibilitate desberdinen parte hartzea bultzatu du".

Ekologi taldearen ustez, jardunaldietan ikusi zen ondo aztertuta dagoen gai bakarra erraustegiarena dela. "Gure ustez, lehenen-

go zabor gutxiago produzitzeko, berrera-bilpena bultzatzeko eta birziklapena indartzeko neurriak hartu behar dira. Gainera, zaborretatik materia organikoa (janariak...) kendu behar da, eta geratzen den zaborra kontrolatutako zabortegietara bota. Neurri horiek zelako emaitzak ematen dituzten ikusi, eta ondoren erraustegia beharrezkoa den ala ez erabaki beharko da".

Bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundia probintziako zaborrekin zer egin aztertzen ari da. Datorren ekainerako erabakia hartuta egongo dela uste da.

A-20: hitzarmena sinatzea falta

Musakolako A-20 areako jabeak eta Udalak akordioa lortuta, orain hitzarmena sinatzea baino ez da falta.

Hartutako akordioaren arabera, hasieran 41 milioi ordainduko diote Udalari eta abenduaren 24a baino lehen beste 38. Deba erreka-kanalizazioa nork ordaindu behar duen, berriz, epailearen erabakiaren zain dago. Jabeek ez dute begi onez ikusten erreka-kanalizazioa eurek ordaindu behar izana eta horregatik, epaitegira jo dute. Epaileak ordaindu behar dutela erabakiz gero, beste 54 milioi ordaindu beharko lukete areako jabeek.

Garrasi Isilaren kontzentrazioa

Joan den asteartean, arratsaldeko zortzietan, kontzentrazioa egin zen Herriko-Plazan Garrasi Isilak deituta. Ramón Doral ertzainaren hilketa salatzeke egin zen kontzentrazio isila. Hainbat arrasatearrek parte hartu zuen protesta ekintzan. Beti moduan borobil bat osatuz egin zen ekintza isila.



URONDO

elektrizitatea

* Elektragaiak

* Instalazioak

* Automatismok

* Proiektuak

* Argiztapena

* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Aizkora tabernak atea itxi zituen domekan. Maala kalean dagoen tabernaren eraikuntza bota egin behar dute egoera txarrean dagoelako eta etxe berriak egin behar dituzte. Taberna Zeziaga familiarikoa da eta azken errentadunak Pepelu Balanzategi eta bere emaztea Ana Lopez izan dira.



Andaluziako eguna goraiatzeko urtero moduan anaitasun bazkaria prestatu zuen **Al Andalus elkarteak zapatuan**. 100 lagun inguru elkartu ziren eta bazkal ostean Al Andalus elkarteke taldeek zenbait ekitaldi eman zuten. Rocio"ko egunarekin batera Al Andalus elkarteak ospatu ohi duen egunik garrantzitsuenaren izan zen zapatukoa.

*Beste bisita bat ere izan zen gurean. **Leioan kazetaritza ikasten** ari diren lau lagun gerturatu ziren Arra-*

satera eta gure artean izan genituen ostiralean. Argazkikoak kazetaritzako bigarren kurtsoa ari dira ikasten.

Elena

Bizkaia Etorbidea, 1. etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorena leihuetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Rafael Unamuno eta Florentzia Pagaldai Gesalibarko Enuzketa baserrian bizi dira. Rafaelek 89 urte ditu eta Florentziak 87. Bikoite honek hilaren 1ean 66 urte egin

zituen ezkontuta. Hamar seme alaba hazi dituzte, 6 mutil eta 4 neska. Rafaelek 90 urte beteko ditu astelehenean, beraz bie zorionak eta urte askotarako!

San Frantzisko Xabier ikastolako bigarren mailako ikasleak izan genituen bisitari asteazkenean. Komunikabideei buruzko lana egiten ari dira eta Arrasate Press eta telebista gertutik ezagutzera etorri ziren. Hainbat galdera egin ondoren, lana primeran egiteko beharrezkoak diren datuak jaso zituzten.



IZEN PROPIOAK

- Kutzaren Asanblada Nagusian **Paco Garcia** eta **Jose Mari Loiti** izango dira Udalaren ordezkariak. Paco Garcia berraukeratu egin dute eta Jose Mari Loiti, Juan Carlos Garitanoren ordezkari sartuko da. Izendapenak asteleheneko plenoan egin ziren.
- Haratuzteetako argazki rallyko sariak banatu ziren ostiralean. Bilduma onenaren saria **Jabi Ozaetak** jaso zuen, 25.000 pta. Argazki onenaren eta bigarren bilduma onenaren sariak **Karlos Murillok** Guztira 25.000 pta jaso zituen. Gazteen saria **Jon Ozaetak** eraman zuen, 25.000 pta. Kajoi tabernak emanda.
- AEDko Zuzendaritza batzordean hainbat aldaketa eman dira. Marilu Ajuria, Dorleta Arana, Miren Arregi eta Rikardo Zubillaga baja izan dira. Euren ordezkari **Gaizka Eraña, Joseba Ezpeleta, Liher Larrea, Josu San Migel** eta **Jose Antonio Villar** sartu dira. Jarraitzen dutenak **Joxe Etxeberria, Olatz Garai, Marije Gomez** eta **Miren Murgiondo**.

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

● Txitxinpe ●

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

● *Iñaki Maidagan*

Goikobaluren harrobiko zuzendaria

Iñaki Maidagan, Goikobaluko zuzendari berria, harrobiko mutila da. Etxean musika dastatu, Arrasate Musikalen ikasi, eta Donostia-ko Kontserbategian hobekuntza egindakoa. Bizi ere, Elgoibarko Musika Eskolako irakasle izanik, musikatik bizi da. Esperientzia berri bati egin beharko dio aurre Goikobaluko zuzendari izatearen erronka onartu eta gero.

- Nola sartu zinen musika munduan?

- Etxean betidanik egon da musika giroa, aitak pianoa jotzen zuen eta anai-arrebek ere ikasi dute instrumenturen bat. Gero Arrasate Musikalen sartu nintzen, beranduago Donostiako Kontserbategira joateko. Solfeo eta armonia eta flauta ikasketen lehen zatia hemen egin nuen, eta bigarrena Donostian, flauta maixu titulua lortu arte. Betidanik mugitu izan naiz mundu honetan.

- Eta gustora?

- Bai. Gauza onak daude eta baita txarrak ere, toki guztietan bezala. Lana ondo eginez gero, norbera gustora geratzen da, betegarria da.

Kontrakoa zera da: musika munduari eta kulturari orohar, garrantzia txikia ematen zaio; dirurik ez dagoenean kulturari kentzen zaio... bigarren mailako gauza bat bezala ikusita dago.

- Goikobalun hasieratik zaudete?


- Sortu eta urtebetera sartu nintzen, musika mundu horri jarraipena emateko asmoz eta zer zen ikusteko.

Taldean integratzea ez zait gogorra egin, aurrez baneuzkan eta musika ikasketak. Nekagarriagoa ardurak piltzea izan da, koralista gisa hasi nintzen, gero sokako ardura-dun, noiz behinka abesbatza bera hartu ezkontzetan eta horrelakoetan abesteko, zuzendaritza hartu arte.

- Erraza izan zen zuzendaritzari baiezkua ematea?

- Ingurukoek asko animatu ninduten eta pare bat egunez pentsatu ondoren hartu nuen erabakia. Niretzat esperientzia berria da, orain arte hainbeste jenderekin lan egiteko aukerarik ez dut izan eta. Aberasgarria izan daitekeela iruditzen zait, baina era berean ardura handikoa.

- Goikobaluk badu izen bat, ezaguna da, zer esperantza



daukazu?

- Orain arteko mailari eustea gutxienez, eta gero ahal bada hobetzea. Honelako taldeetan beti egoten dira gorabeherak eta neuri apur bat beherakadan etorri zait taldea.

- Beherakadan? Nola?

- Zuzendaria bera apur bat nekatuta zegoen eta abesbatza motel samar zegoen. Zuzendari berriarekin, hasieran beherantzago joaten da, baina lana eginez gero orain adina ezagutaraziko dugu. Eta ikusitakoarekin gustora nago, jendeak ondo hartu nau eta.

- Zerbait aldatuko da Goikobalun?

- Pertsonak desberdinak diren heinean, baita lana egiteko era ere. Entsaioetan Ruiz de Alegriak jendea biltzeko trebetasun handia zeukan, asko hitzegiten zuen gauzak

azalduz. Nik garrantzia handiagoa ematen diot kantatze-ari gauzak azaltze-ari baino. Horretaz gain, lana asteko bi entsaioetara mugatu nahi nuke, derrigorra ez bada, gehiago egin barik.

- Arrasate Musikalekin batera eskaini zenuten kontzertua joan den astean. Zer moduz?

- Gustora, gehiago gainera hilabetean prestatu genuela eta alemanez kantatzeko lana zela kontuan hartzen bada. Hobetu daiteke, baina hala ere gustora.


- Nora eraman nahi duzu Goikobalu?

- Orain urte batzuk sinfoniaren bidea hartu gura genuela erabaki genuen. Sartu nintzenez ez nuen uste gauza handiegirik izango genuenik eta pentsatzen nuen polifonia edo gutxienez a capella abestea, jendearen arteko lotura lortzeko. Baina Arrasate Musikal hemen dago eta uste dut biontzat interesgarria dela sinfonia lantzea.

● **Musika munduari eta kulturari orohar, garrantzia txikia ematen zaio; dirurik ez dagoenean kulturati kentzen zaio... bigarren mailako gauza da.**

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Bigarren Faseko 2. ihardunaldia.*
- *Protagonistak:*
Jose Luis Otxandiano eta Mikel Armendia.
- *Taldeen aurkezpena:*
Arrasate Zoo, Totem eta A ti que te importa.



Normaltasuna izan zen nagusi bigarren faseko lehen ihardunaldian. Guztira 16 neurketa jokatu ziren zapatu eta domeka bitartean Zaldibarren. Bigarren fase horrek martxoaren 24a arte iraungo du, une honetan beraz, beste sei ihardunaldi falta dira hirugarren faseari hasiera emateko.

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea 1-04
Tfnoa: 791844
Faxa: 792944

ARETXABAETA

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	Guzt.
Perrahotsa	1	1	0	0	4	1	2
Argi Ibili	1	1	0	0	7	2	2
Okoretegi Taberna	1	1	0	0	4	2	2
Kamasutra	1	1	0	0	7	4	2
A ti que te importa	1	0	0	1	4	7	0
Txeyenex	1	0	0	1	2	4	0
Zotz Motz	1	0	0	1	2	7	0
Hirei	1	0	0	1	1	4	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	Guzt.
Fosforos	1	1	0	0	10	4	2
AC Surcos	1	1	0	0	5	3	2
Sokoakoak	1	1	0	0	7	5	2
Los Heredia	1	1	0	0	5	4	2
Cerveceria Leintz	1	0	0	1	4	5	0
Nuevo taberna	1	0	0	1	5	7	0
Orlando Piratas	1	0	0	1	3	5	0
Lautherbrunen	1	0	0	1	4	10	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	Guzt.
Adelaida Haizea	1	1	0	0	5	0	2
MSM Ing. Int.	1	1	0	0	4	2	2
DKB	1	0	1	0	5	5	1
Pub People	1	0	1	0	5	5	1
Arrasate Kirolak	1	0	1	0	5	5	1
Arrogoi Taberna	1	0	1	0	5	5	1
Danok lagun	1	0	0	1	2	4	0
Insert Coin	1	0	0	1	0	5	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	Guzt.
Aurrera Bolie	1	1	0	0	4	1	2
Betrayer	1	1	0	0	7	2	2
Irati STS	1	1	0	0	4	3	2
Totem	1	1	0	0	6	5	2
Trikiti	1	0	0	1	5	6	0
Anbotoste	1	0	0	1	3	4	0
Sortu Informatika	1	0	0	1	2	7	0
Artzankos Udalaiz	1	0	0	1	1	4	0

● **Datorren astebu-
kaeran Uribe Auzoa
txapelketa hasiko
da. 60 taldek eman
dute izena, iaz baino
bost gehiago.
Guztira 782 jokalar
arituko dira Iturripen
partiduz partidu
emaitza onenak
ateratzeko asmoz.
Neurketa guztiak
Iturripen A eta Bn
jokatuko dira goize-
ko 9etatik arratsal-
deko 7ak arte.**

Emaitzak

A Taldea

A ti que te importa 4 - Kamasutra 7
Argi Ibili 7 - Zotz Motz 2
Perrahotsa 4 - Hirei 1
Okoretegi Tab. 4 - Txeyenex 2

B Taldea

Fosforos 10 - Lautherbrunen 4
Cerv. leintz 4 - Los Heredia 5
Sokoakoak 7 - Nuevo taberna 5
AC Surcos 5 - Orlando Piratas 3

D Taldea

Arrogoi Taberna 5 - DKB 5
Adelaida Haizea 5 - Insert Coin 0
Danok lagun 2 - MSM Ing. Int. 4
Arrasate Kirolak 5 - Pub People 5

E Taldea

Aurrera Bolie 4 - Artzankos Udalaiz 1
Betrayer 7 - Sortu Inform2
Trikiti 5 - Totem 6
Anbotoste 3 - Irati STS 4

Hurrengo partiduak

**2. Fasea
Bigarren Ihardunaldia**

Larunbata 9

Zaldibar

8.50 Sortu Informatika - Artzankos Udalaiz
10.00 A ti que te importa - Argi Ibili
11.00 Perrahotsa - Okoretegi taberna
12.00 Aurrera bolie - Betrayer
13.00 Los Heredia - Lautherbrunen
14.00 Zotz Motz - Kamasutra
15.00 Orlando Piratas - Nuevo taberna
16.00 Sokoakoak - Ac Surcos
17.00 Pub people - MSM Ing Integral
18.00 Irati STS - Totem
19.00 Arrogoi Taberna - Adelaida Haizea

Igandea 10

Zaldibar


8.50 Trikiti - Anbotoste
10.00 Txeyenex - Hirei
11.00 Insert Coin - DKB
12.00 Fosforos - Cerveceri Leintz
13.00 Danok lagun - Arrasate Kirolak

Bigarren faseko arauak

Bigarren fasea hasten denean arau batzuk hartu behar dira kontuan. Guztien artean lau arau dira azpimarratzeko modukoak.

- Alboko sakeak area barrutik ateratzen badira ezin zaio baloia atezainari eman.
- Erdiko sakea aurrera atera behar da nahi eta nahiez.
- Aldaketak beti atearen ostetik. Arau garrantzitsua eta bete beharrekoa.
- Jokalari batek ezin dio atezainari baloia eman eta honek eskuaz jaso. Hori eginez gero, falta izango da eta atezainak hartzen duen tokitik jaurtiko dute.

Betiko arauak diren arren, jokalariek zehatz mehatz bete beharko dituzte



Neurketa gomendagarriak

Bigarren faseko bigarren ihardunaldian besteak beste lau neurketa interesgarri izango dira. A ti que te importa eta Argi Ibilik elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak

zapatuan goizeko 10etan. Talde sendoak dira eta dakiten moduan jokatzen badute joku polita ikusi ahal izango da. 4etan sokoakoak eta AC Surcos izango dira lehian eta 6etan Irati STS Totem. Domekan beste neurketa bat gomendatu behar Fosforos eta Cerveceria Leintzen artekoa. Borroka biziko neurketa izan daiteke.

Protagonista


Juan Luis Otxandiano Trikiti

— Bigarren fasera sailkatu zarete, espero zenu-ten?

— Bai gehienetan sailka-tu gara eta lehen fasea nola joan zen ikusita espero genuen. Nik lehenengo aldiz hartzen dut parte Trikiti taldearekin. Aurretik Arrasate Kirolak taldean ibili nintzen eta beti sailkatu naiz.

— Zer moduzko partidua izan da?

— Gaurko taldea nahiko zaila. Galtzen joan gara bi goleko aldeaz, ekinaren ekin- ez berdinketa lortu dugu eta azkenean ezbeharrezko jokaldi batean garaipenaren gola sartu digute. Egia esateko Totem talde sendoa da eta hobeto jokatu dutelako eraman ditu puntuak.



— Zer moduzko multzoan zaudete?

— Ez dakit. Ni jokatzera etortzen naiz eta ez ditut beste taldeak kontuan hartzen. Justo justo dakit E multzoan gaudela baina gainontzeko talde berri ezer ere ez.

— Asteazken zehar entrenatzen duzue?

— Tabernaria naiz eta ez dut astirik entrenatzeko. Partidu egunean azaltzen naiz.

— Bigarren faseko neurketa guztiak Zaldibarren jokatu dira zer deritsozu?

— Oso ondo ikusten dut. Zaldibarren hobeto jokaten da, handiagoa da eta ez da horrenbeste eteten jokua. Beraz neurketa guztiak hemen jokatzeko oso ondo dago.

— Bigarren fasean hainbat arau aldatzen da, zailagoa da jokatzeko?

— Ez, arauak aldatzen diren arren, gutxi dira eta dagoeneko badakigu zeintzuk diren. Horregatik ez dute arazorik ematen eta ondo daudela uste dut.

— Talde faboritoak?

— Fosforos oso ondo ikusten dut eta ziur nago Trikiti ere goialdean ibiliko dela. Lehen neurketa galdu egin dugu baina talde sendoa dugu eta txapelketa txukuna egin dezakegu.

Labur

■ **IZENA ALDATU**
Frantziskanner taldeak izena aldatu du eta hemendik aurrera Arrogio taberna deituko da.

■ **EMAITZA AIPAGARRIAK**
Bigarren faseko lehen ihardunaldian azken minutuetan lortutako bosnako bi berdinketa izan ziren. Arrogio taberna eta DKBk bosna berdindu zuten. Azken minutuan lortu zuen DKBk berdinketa markagailura igotzea. Arrasate Kirolak eta Pub Peoples artean ere bosnako berdinketa nagusitu zen. Arrasate kirolak gol bateko aldeaz azken minutuan ezbeharrezko jokaldi batean bere atean sartu zuten gola Arrasate kirolak taldekoek.

Protagonista


Mikel Armendia Totem

— Nolako izan da partidua?

— Larri eta estu ibili eta gero irabazi egin dugu. 4. gola sartu arte ondo ibili gara baina une horretan beharbada gehiegi lasaitu gara, bosna berdindu dugu eta azkenean kostata garaipenaren gola lortu dugu. Gogorra izan da partidua.

— Bigarren fasera iristea lortu duzue, sorpresa izan da?

— Ez, bi urte daramatzat talde honetan eta iaz hirugarren fasera heldu ginen. Aurretik beraz espero genuen bigarren fasea lortzea. Gainera esan behar da Totemek talde sendoa duela eta egindako



merituengatik gaudela bigarren fasean.

— Multzo gogorra tokatu zaizue?

— Gogorra bada, baina A eta B multzoak askoz gogorragoak dira. Dena dela, gure multzoko neurketak ez dira samurrak izango eta irabaz-

teko dugun onena ematen ahalegindu beharko dugu.

— Hurrengo fasea nola ikusten duzue?

— Zaila izango da baina itxaropena badugu. Geratzen zaizkigun hiru neurketetan gogor eta gogoz bagabiltza, hurrengo fasera jongo gara.

— Faboritoak?

— Adelaida Haizea aukera askorekin ikusten dut. Hala ere ezin da ahaztu Cerveceria Leintz, Fosforos, Argi Ibili eta Orlando Piratas kementsu datozela.

— Neurketak Zaldibarren jokatzeko ondo dago?

— Gure taldearentzat primeran. Teknikoki ez gara oso trebeak eta indarra erabiltzeko kantsa onena da Zaldibarkoa.

■ **GOLAK**
137 gol sartu dira lehen ihardunaldian. Gol gehien sartu duen taldea B izan da 43 golekin. E taldean 32 sartu dituzte eta beste bietan 31. Fosforos izan da ihardunaldiko talde goleatzaileena, 10 sartu dizkio Lutherbrunneri.

■ **EPAILEAK**
Bigarren fasean epaile ofizialak izango dira txapelketan. Canacho, Perez, Aizkora eta Andoni Zurbanok epaituko dituzte partidua gehienak antolakuntzaren laguntzarekin.



Totem



A ti que te importa



Arrasate Zoo

Hiru talde hauekin aurkeztu ditugu Zaldibar txapelketan parte hartu duten talde gehienak. Jokalariak ezagutu asmoz astebururo astebururo Zaldibar eta Iturripen izan gara protagonisten egoteko. Orrialde honetatik 70 talde baino gehiago pasa da.



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)


AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE



Emakumearen eguneroko borroka

Itxaro Zubillaga

Tratu txarrak, eraso sexualak, diskriminazioa... emakume izateari lotuta egon diren eta dauden arazoak dira. Andrazko asko eta askok gizonezkoen bortizkeria jasaten du egunero alor guztietan. Martxoaren 8an berriro ere emakumeen eskubideak aldarrikatuko dira.

Arrasaten emakumeen eskubidea lortzeko borrokan lau talde ari dira lanean. Talde bakoitzak helburu nagusi bera duen arren, elkarrekin oso desberdinak direla esan daiteke. Beraz emakumearen eskubide eta berdintasunak lortzeko era eta bide asko dagoela isladatzen dute herrian ditugun Ekinnek, Famili Gizarte Hezketa-rako Zentruak, Egizaneak eta Emakumeen Asanbladak.

Urte dexente daramate aipatutako lau taldeak euren bidea jorratzen. Lan zail horretan herriko esparru guztietara heldu nahi izan dute. Hori dela eta, Udaleria ere zuzendu ziren berdintasuneko agente baten beharra aldarrikatzeko. Euren hitza azkenean entzun zen eta Ongizate Sailaren barruan emakumei zuzendutako batzorde bat jarri zuten abian. Aurreko Udaltaldearen hauteskundeetan berriz, ekintza baten emakumeek euren zuzendutako departamendua independentea izatea lortu zuten. Departamendu horren



eginkizuna Udaleko sail desberdinetan eta bide batez herrian emakumearen presentzia isladatuta geratzea izango litzateke. Bertan alderdi politikoei, emakume taldeek eta Berdintasunerako Agenteak hartzen dute parte. Maiztasun handiz kontseilu bat izaten da gaiak landu eta ondorioak ateratzeko. Erabakiak berriz, batzordean hartzen dira. Herriko emakume taldeek beraz, harreman zuzena dute departamendurekin eta arazo batzueri aurre egitea lortu dutela esan behar.

Orain beste zalantza eta kezka baten aurrean daude batzorde

de horri zuzendutako aurrekontuarekin zer gertatuko den zain. Beldurra, kezka eta ezjakintasuna azaldu dute emakume taldeetako partaideek. Izan ere aurrekontuak izoztu direnez, ez dakite zein izango den euren etorkizuna. Hala ere bide horretatik aurrera egiterik ez bada, beste batzuk aurkitzeko asmoa agertu dute.

TALDEEN HELBURUAK

Emakume talde bakoitzaren helburu garrantzitsu bat emakumearen berdintasuna lortzea den arren, talde bakoitzak bere filosofia eta lan egiteko era du.

Ekin taldea 12 urte dela hasi zen lanean AED elkartearen barruan, iaz egitura propioa sortu eta elkarte moduan osatu zen Ekin taldea. Marilu Ajuriak esaten duenez euskara emakumeen artean bultzatzeko helburuarekin hasi ziren lanean. "Euskara bultzatu eta emakumea etxetik ateratzeko asmoz hasi ginen ekintzak antolatzen, era guztietako ekintzak, batez ere gizartearen pil-pilean zeuden gaiak landuz eta beti euskara erabiliz".

Famili eta Gizarte Hezketa-rako Zentrua bestelako arrazo bategatik sortu zen duela 25

urte. "Garai hartan emakumeek ia ez zuten formakuntzarik eta hutsune hori bete guran beraiei zuzendutako ikastaroak ematen hasi ginen" dio Jonek. Hasieran kanpotarrei Euskal Herriko ohiturak barneratzeko beharra ikusita antolatu zituzten ikastaroak, gero zabaldu egin zen helburua eta bertako emakumeek ere hartu zuten parte. Gaur egungo helburua antzerakoa dela esan daiteke. "Pertsona formatuagoa, kritikoagoa izatea nahi dugu, emakumeei gauzak esan eta egiteko estilo bat eman nahi diegu, horregatik interesatzen zaizkien gaiak jorratzen ditugu".

Emakumeen Asanblada 1976an jaio zen, garai hartako emakumearen aldeko errebindikazio gisa. Lehen bilere-tan feminismoa, diskriminazioa eta emakumeek bizi zuten egoera beltzari buruz eztabaidatzen zuten. Malen Errastik dituzten asmoen gainean hitzegiten du. "Mugimendu feminista heterogeneo eta handi baten partaide gara eta gure helburua sexu berdintasuna lortzea da. Bigarren mailako jendea egon ez dadin borrokatzen dugu. Emakumeok paraitzen dugun sufrimendua gizarte osoko arazoa dela erakusten saiatzen gara. Gizartea ez da mundu pribatu eta publiko batean banatuta egon behar eta gizonezkoak publikoaren partaide izan, emakumearen funtzioa pribatuan geratzeko".

Egizanez ere urte mordoa darama emakumearen alde lan egiten. Feminismo abertzale sendoa lortzea da Egizane-koen egitasmo garrantzitsue-na. "Gizartea ez dago kontzientziatuta emakumeek noraino gauden oprimituta ulertze-ko. Nazioarteko feminismoak kontzientzia orokorra lortu du baina orain ez dago indarrik gizarte kapitalista eta patriarkal hau goitik behera aldatze-ko. Gizarte egitura bera da diskriminatzailea eta etxean behar gaitu. Guk emakumearen arazoa ez dugu bakarrik sozial edo ekonomi mailan ulertzen. Bi

estaturen artean gaude Euskal herriko herritarrok eta ez gaituzte gizarte kolaboratzaile, kooperatibo eta zoriontsua osatzen uzten. Euskal Herria zapaltzen duen gizartearen kontra dauden zenbait faktore dugu eta horren barruan kokatzen da gure errebindikazioa, emakumeentzat eta orokar euskal herritarrentzat nazio askatu bat eraikitze borrokan ari gara lanean".

HARREMANAK

Lau talde hauen artean adiskidantzako harremana dagoela esan daiteke. Horregatik daude elkarrekin Udaletzeko Emakumearen Batzordean. Dena dela garbi utzi nahi dute feminismoa eta emakumearen egoera aztertze-ko era desberdinak daudela eta bakoitzak berea jarraitzen duela, nahiz eta egun berezi batzutan elkarrekin antolatu ekintzak. Herrian emakumeen eskubideen alde lanean lau talde izatea begi onez ikusten dute eta gehiago egongo balira emaitza hobeak lortuko lirakeelakoan daude. Ideologiari dagokionez oso desberdinak dira. Egizan eta Emakumeen Asanbladakoek abertzale eta ezkertiarzat dute euren burua. Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruak ez du ideologia politikorik, plurala da eta horrela izan behar duela azpimarratu du Jonek. Ekin ere kolore guztietako emakumeek osatutako taldea da, euskara jakin edo ikasteko asmoarekin daudenak alegia.

EKINTZAK

Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruan era guztieta-ko ikastaro eta hitzaldiak ematen dituzte emakumeen formakuntza hobetzeko. "Emakumeon beharrak ikusten ditugu ekintzak antolatze-ko orduan. Ikastaroak zabalik daude emakume eta gizakumeentzat baina batez ere emakumeak zuzentzen dira. Ekin-ekoek ere hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen dituzte urtean zehar. "Normalean etxean

**SAGRA LOPEZ**

Egizan

"Gizarte bera da diskriminatzailea eta etxean behar gaitu. Gu egitura aldatu eta feminismo abertzale sendoa lortzeko ari gara lanean"

**GOIZANE LARRAÑAGA**

Berdintasunerako Agentea

"Emakume Sailaren eginkizuna Udalean eta herrian emakumearen presentzia isladatuta geratzeko izango litzateke"

lan egiten duten emakumeek etortzen dira. Etxetik kanpo lan egiten dutenek arratsaldeetako ekintzetan hartzen dute parte baina maiztasun gutxiago-

rekin. Gazteak berriz ikastaro puntaletan egoten dira, esatebaterako eskulan ikastaroan. Egizan eta Emakumearen Asanbladakoek egun zehatze-



JONE ASTIGARRAGA

Gizarte eta Famili Hezketarako Zentrua

“Pertsona formatuagoak eta kritikoagoak izatea nahi dugu. Emakumeei gauzak esan eta egiteko estilo propioa eman nahi diegu”



MALEN ERRASTI

Emakumeen Asanblada

“Bigarren mailako jendea egon ez dadin borrokatzen dugu. Sexu berdintasuna lortzea da gure helburua”



MARILU AJURIA

Ekin Emakume Taldea

“Euskara emakumeen artean bultzatzeko eta bide batez etxetik ateratzeko hasi ginen lanean”

tan hitzaldiak antolatzen dituzten arren, euren lana bilere-tan egoten da, emakumeen arazoak eztabaidatu eta jendea kontzientziatzen.

EGUNGO EGOERA

Talde guztiak bat etorri dira emakumearen egoera hobetu bada ere berdintasuna lortzeko bidea luzea dela esateko orduan.

Egizaneko Sagra Lopezek emakumearen egoera biztanle eta langile moduan oso gaizki dagoela uste du. “Emakumeok boto eskubidea eta beste eskubide batzuk lortu ditugu baina praktikan lan mundutik kanpo gaudede, ez da gure lana errekonozitzen eta tamalez egoera aldatzeko beste gizarte egitura bat lortu beharko litzateke, gizon eta emakumeok aukera eta proiektio berdinak izateko”. Malenek ere ez du baikor aztertzen gaur egungo emakumearen egoera “Feminismoak azken 20 urte hauetan gauzak aldatzea lortu du, feminismoa gizartera heldu da baina sexu berdintasuna oraindik urruti dago, emakumeak diskriminatuta jarraitzen du”. Ekinekoen berbetan emakumeak etxeko giroarekin oso lotuta jarraitzen du “Gizonek etxeko lanetan parte hartzen ez duten heinean berdintasun hori lortzea zaila izango da. Egia da bestalde, emakumeok etxetik irteerako askatasun gehiago dugula baina behin etxean lana bikoiztu egiten zaigu. Gainera etxera dirua eramaten ez duen emakumea

askoz ere lotuagoa dago. Hala ere emakume guztiok autoestima gehiago behar dugu, gure lanari garrantzia emateko gai izan behar dugu”. Jone Astigarragari egoera ez dela horrenbeste aldatu iruditzen zaio. “Ez dira horrenbesteko aurrerapausoak eman. Zentruko andrekin hitz egiten dudanean etxean gertatzen zaienaren adibide asko ematen didate eta egoera ez dela ezer aldatu pentsatzen dut”. Goizanek berdintasunerako Agentek berriz, ere emakumearen egoera ez dela ona dio “Emakumea txarto dago arlo guztietan: lanean, komunikabideetan, gizarteetan. Egoera ona balitz ez lirateke emakumeen aldeko taldeak izango ezta emakumearen berdintasunerako agenterik ere”.

Gaur arteko ahalegina handia izan bada ere ez da nahikoa izan emakumearen berdintasuna lortzeko. Dena dela Arrasateko emakume taldeek borrokan jarraitzeko gogoia dute. Martxoaren 8rako herriko emakume taldeek ekintzak elkarrekin antolatu dituzte euren ahotsa herrian zabaltzeko.

Dorletako Ama eskolak ilusio eta itxaropen handiz hasiko du denboraldia

Dorletako Ama txirrindulari eskolari eskolak aurtengo denboraldiko aurkezpena egin zuen zapatuan Gatzagan. Lau taldek osatuko dute taldea eta 44 txirrindulari arituko dira lasterketaz lasterketa ahalik

eta lan onena egiten. Aurten zuzendaritza batzordean eman da aldaketa nabarmenena. Orain arte Jose Mari Roldan izan da zuzendaria baina bere lekua Ane Josu Guede beteko du hemendik aurrera.

Dorletako Ama Txirrindulari Eskola

Zuzendaria: Ane Josu Guede

Lehendakari orde: Jose Maria Roldan

Idazkaria: Amaia Muruguza

Bokalak: Rafa Antia

Jesus Garai

Josu Eztevez

Lorenzo Bernal

Juan Luis Agirre

Jose Galan

Jacinto Sedano

Dionisio Mena

Luis Sebastian

Kirol medikua: Alberto Garai

Prestatzaile fisikoak: Juan Ignazio Errasti

Alex Iturbe



Lehen eta bigarren mailako Kadeteak (J.M.A Alejandro Altuna)

Zuzendariak: Jose Galan, Ane Guede eta J. L. Agirre

Txirrindulariak:

Xabier Ayala

Asier Atxa

Xabier Beitia

Asier Bengoa

Fran Galan

Iñaki LLodio

Asier Sastre

Aliver Hernandez

Iban Velasco

Alberto Ramirez

Gorka Etxezarreta

Jose Maria Galan

Antonio Agirre

Imanol Garcia

Gorka Almaraz



Lehen eta bigarren mailako Jubenilak (FAGOR)

Zuzendariak: Jacinto Sedano eta Luis Sebastian

Txirrindulariak:

Jose Sedano

Jon Ander Ramos

Zuhaitz Herrero

Mikel Roldan

Xabier Leibar

Iker Elorza

Iraitz Diaz

Gorka Gonzalez

Aitor Kortabarria

Jon Rubio

Iñaki Lete

Ander Uralde

Oier Garro

Mikel Sebastian

Alberto Tijero



Infantilak (Arrasate Kirolak)

Zuzendaria: Rafa Antia eta Lorenzo Bernal

Txirrindulariak:

Eder Antia

Iker Bernal

Rafa Gomez

Jabier Marcos

Daniel Lazkano

Aitor Pavón

Jose Manuel Tena

David Espinosa

Richard Lopez

Jose Angel Lopez

Mondra, aldatu edo Prefente mailara jeitsi?

3. mailako Mondra ezinean dabil denboraldia hasi zenetik. Zivojevic entrena-tzaileak gaur arte ez du asma-tu eta jokalarien lanak ez du fruiturik ematen zelaian. Mondra une honetan sailka-peneko 18. tokian dago 27 punturekin. 27 ihardunaldi jokatu direnean 14 neurketa galdu dituzte 6 berdindu eta 7 irabazi. Batz besteko txarra 3. mailari eutsi nahi dion talde batentzat. Lehen buelta petrala egin ondoren, bigarrenean gauzak aldatuko zirela pentsatzen zen baina partiduz partidu ikusitakoaren arabera esan daiteke gauzak ez doazela bide onetik. Oraindik 12 norgehiagoka falta zaizkio Mondra taldeari zer egiteko gauza den erakusteko. Helburu hori lortzeko gaur arte baino ganora eta gogo gehiago jarri beharko dute jokalariek bestela preferente mailaren mamua erre-alitate bihur daiteke

Datorren domekan Her-



Mondrako jokalariek ezin dute kale egin domekan.

naniren bisita jasoko dute mondragoetarrek arratsaldeko 4.30etan Atxabalpen. Hernani sailkapeneko 15. tokian dago 33 punturekin. Lehen bueltan 2 eta 1 irabazi zuen Hernanik. Taldea

ez da sendoa eta Mondrak neurketa irabazteko aukurak baditu. Horretarako jakina, Lagun onak taldearen aurrean erakutsi zuten itxura kaskarra hobetu beharko dute.

Urbina Maltzaga gero eta sendoago

Urbina Maltzaga 5. tokira igo da sailkapenean jarraian sei neurketa irabazi eta gero. Samaniegoren mutilak talde sendo eta kementsuaren itxura erakusten ari dira azken partiduetan. Defentsan multzoko talde onenatarikoa dela argi eta garbi utzi du Arrasateko taldeak. Gainera Carlus Groves amerikarraren laguntzarekin erasoan puntu dexente lortu dute. Urbina Maltzagarentzat garrantzitsua eta erabakiorra izango da zapatuan arratsaldeko 7etan Espolonen kontra jokatu behar duen norgehiagoka. Espolonek 39 puntu ditu eta sailkapeneko 8. tokian dago. Samaniegoren mutilek goialde horretan lasai egoteko nahi eta nahiez irabazi beharko lukete. Burgosko taldeak bestalde, helburu bera du, hau

da, ahalik eta puntu gehien lortu igoe-rako play offa jokatu ahal izateko.

Eskubaloikoek etxetik kanpo hobeto

Eskubaloi taldeak Hormigones Vigo azken sailkatua izango du aurrean zapatuan arratsaldeko 6etan Bonbonera kiroldegian Sailkapeneko zuloan dauden taldeak izango dira nor baino nor baina Arrasatek irabaziko balu, jeitsiera fasea ez jokatze txartel guztiak izango litzuke. Herroren mutilek beraz, ezin dute kale egin, euren etorkizuna partidu horretan egon daiteke eta. Vigo taldeak bi hegaleko garrantzitsu ditu, gainontzekoek ez dute pisu handirik. Arrasateko taldean Txuko, Kortabarria eta Ansuategi erdi lesionatuta daude, hala ere Galiziara joango dira.

LABURRAK

Zikloturistak

Arrasateko zikloturistek denboraldiko bigarren irteera egingo dute domekan: Ibilbidea: Arrasate, Oñati, Udana gaina, Legazpi, Deskarga, Bergara eta Arrasate. Irteera goizeko 10etan Monterrendik

Gorlako igoera

Arrasate afizionatu mailako taldeak denboraldiko bigarren erronka izango du domekan. Txirindulariek Gorlako igoeran hartuko dute parte. Beteranoen lasterketa eguerdiko 11.30etan hasiko da eta afizionatuena 12etan. 120 txirindulari inguru izango dira irteerako lerroan. Iaz beteranoen lasterketa Jose E. Fernandezek irabazi zuen eta afizionatu mailan azkarrena Claus Moller izan zen.

AEDko nesken txapelketa

Martxoaren 9an hasiko da AEDk antolatutako II. nesken futbito txapelketa. Neurketak zapatutan jokatuko dira goizeko 9etatik ordubata arte San Viatorren. "Jantzizu kirola euskaraz" lemapean antolatutako txapelketak kirola egin eta euskara erabiltzea du helburu.

Deba Arroa

Arrasateko pilotariak Deba Arroa Txapelketari emango diote hasiera zapatuan. Arrasate eta Aretxabatetako pilotariak izango dira lehian. Mauri Zubillaga entrenatzaileak pilotari hauek aukeratu ditu: kadetetan Aitzol lazcano eta Dabid Belategi, jubeniletan Gorka Etxeberria eta Oscar Rubia, afizionatuetan Iker Zugasti eta Lordi Zuazuabiskar.

Maite Agirre

Zergatik, panpox?

Hogei urte baino gehiago eta 80 baino gutxiago dituela esaten du esperientziadun antzerkilari honek. Orain dela hogei urte inguru hasi zen antzerkian eta duela 12 "Agerre" antzerki taldea sortu zuen. Oraingoan berriz protagonista bakarreko antzezlan batekin dator, Arantxa Urretabizkaiaren Zergatik, panpox? elaberrian oinarritutako obrarekin hain zuzen. Berak egiten du ama gogoetatsuaren papera eta ABC eta El Mundo egunkariak oso kritika ona egin diote. Arrasaten bihurtu izango da ikusgai.

— Zergatik aukeratu zenuen elaberri hau antzezteko? Zer erakarri zintuen?

— Emakume baten sentipen eta pentsamenduak antzezlaneko protagonista izatea oso interesgarria iruditu zitzaidan. Gero, antzezlanean sartu nintzenean beste gai batek hartu zuen indarra bapatean: amatasunak. Amatasun horrek oso indar freskoa dauka. Protagonista ama den emakume bat da. Maitalea joan egiten zaio eta emakume hori bere semearekin bakarrik geratzen da.

— Hitz gutxitan, zein da obraren sinopsia?

— Emakume batek egunerokotasunetik abiatu eta mila bide zabalduko ditu alde egin duen lagun maitarearen inguruan. Obraren zehar bakarriketa tentsioan dihardu maitasunaz eta amatasunaz. Gaur egungo gizakion barne muinetaraino eramaten gaituen emakumea edo espektakulua da. Zergatik, panpox? antzezlanean emakume pro-



tagonistak gogoeta eta sentipenak kontatu baino arago bizi izaten ditu. Oso poetika handia dauka obra honek, lirismoa eta originaltasuna ere baduela uste dut. Emakume horrek egoera desberdinen aurrean gauzak nola kontatzen dituen, nola bizi izaten dituen eta zein erreakzio dituen oso garrantzitsua da.

— Zer zailtasun du pertsonaia bakarreko obra bat antzezteak?

— Ikusleekin harremana lortuz gero erraza izaten da jarraitzea. Ikusleengandik oso hurbil dagoen protagonista da gainera. Horren ondorioz ikusleek hurbil sentitzen dute. Segituan euren buruaren ispilu gisa ikusten dute pertsonaia, orain arte egin ditudan emanaldietan behintzat hori esan didate. Ikuskizun normal batean, berriz, beste zailtasun batzuk egoten dira: beste aktoreekiko harremanak, erantzunak nola kokatu... baka-

rrizketa baten berriz, jarraitpen bat da dena eta horrek hasieratik bukaeraraino etenik egin gabe eramaten zaitu. Erritmoa hartu eta ibaiak eramaten zaitu. Espektakulu hau sinfonia bat da.

— Emakumeek istorioa hurbilago sentitzen dutela uste duzu?

— Ez dut uste, gizonezkoengandik eta emakumezkoengandik dago hurbil.

— Zer moduzko harrera izan dute orain arteko emanaldiek?

— Egia esan, oso ona. Euskarazko estreinua Donostiako Antzoki Zaharrean izan zen eta ondoren Madrilan erdaraz. Talde guztiak lau aste egin genituen han eta berriz bueltatzeko asmotan gaude, arrakasta, ikusle goaren eta kritikaren aldetik, oso handia izan zen eta. Edonori luzatuko nioke emakume honen gogoeten testigu izateko gonbidapena.

LABURRAK

Zine-Kluba abian

Atzo hasi zen Udalak urterotzatzen duen zine-kluba, Azucena Rodriguez zuzendari espainiarraren "Entre Rojas" filmarekin.

Zine-kluba, beti bezala, ostegunetan izango da, gaueko 9.30etan eta 350-400 ptatik. Martxoan emanaldiak berriz, "Emakume Zinegileak" izenburupean izango dira, eskainiko diren filmek emakumezkoak zuzendutakoak dira eta.

Datorren ostegunetan, hilak 14, Chus Gutierrezen "Sexo Oral" pelikula botako da, hiruroei lagun baino gehiagok kontatutako sexu esperientzien inguruko filme dibertigarria. Martxoaren 21ean berriz, Anja Breien zuzendari norbegiarraren "Las esposas" filma izango da ikusgai. Filme honek hiru eskola lagun zahar elkartu eta gero egiten dituzten gogoeak kontatzen eta isladatzen ditu. Azkenik, martxoaren 28an, Doris Dörrie alemaniarraren "El interior de la ballena" filma ikusi ahal izango da Amaia Antzokian. Azpijokuetan ibiltzen den polizia baten alabak bere ama aurkitzeko egin behar izaten dituen komerien inguruko filma da.

Zine-Kluba urte osoko ostegunetan zehar izango da, baina oraindik zehazteke daude pelikula guztiak.

Tronboi emanaldia

Arrasate Musikalen eskutik, tronboi emanaldia izango da entzungai igandean, martxoak 10, arratsaldeko 7etan Arrasate Musikaleko Areto Nagusian.


Musika emanaldia "Arrasateko Brass Tronboi Taldea" eskainiko du. Musikalariak obra desberdinak eskainiko dituzte.

Keramikako hastapen ikastaroa

Leintz Keramika tailer berrituan

Duela egun gutxi eta elurpean estreinatu zuen Arrasateko Keramika Eskolak bere lokal berria. Zaharra geltoki zaharreko eraikinean zegoen eta berria parean dago. Lehengoa baino askoz txikiagoa da oraingoa baina Angel Alonsok, presidentea esaten duenez, askoz hobeto antolatuta dago.

Urtebete pasatu dute Arrasateko keramikazaleek lokalaren zain eta orain gogoz ekin diote bideari berriz ere. Etapa berri bat hasi dutela esan daiteke eta etapa horretan jende berria hurbilaz nahi lukete eskolara. Horretarako ikastaro bat antolatu dute. Ikastaro hori hastapeneko izango da, hau da, keramikan sekula ibili ez direnei zuzendutakoa. Arantzazu Aranzabal keramista bergararrak emango ditu eskolak eta ikastaroak 50 orduko iraupena izango du. Martxoaren 18an hasiko dira klaseak eta astelehen, astearte eta ostegunero 6.30etatik 8.30etara bitartean izango dira.



Hamabost lagunendako tokia baino ez da izango martxoaren 18an hasiko den ikastaroan.


Ikastaroa praktikoa izango da batipat, praktikan aurreratu ahala erakutsiko da teoria. Ikastaroan zehar, plakak egin eta totoa erabiltzen irakatsiko da.

Keramika Eskolako egoitza berria oso ondo hornituta dagoela esan behar da. Labe elektriko berria erosi dute, punta puntakoa eta eskualdean dagoen modernoena. 22

programa desberdin ditu eta 1.280 graduko tenperaturara heltzen da. 400 litroko kabiera du. Lokal zaharrean beste bat erabiltzen zuten, oraingoa baino askoz sinpleagoa. 200 litroko kabiera baino ez zuen, hala ere, berriztu egingo dutela eta berriz ere erabiltzen hasiko direla esaten du Angel Alonsok. Lokalean 5 totoa elektriko eta manual bat dau-

kate ere. Tornoei dagokionez, ez dute ekipamendu berririk erosi.

Orain 30 bat bazkidek osatzen dute Keramika Eskola baina ikastaro berriarekin, bazkide berriak egin nahi dituzte. Ikastaroan 15 lagunendako lekua baino ez dago. Izena emateko 79 87 95 telefonora deitu eta Angelengatik galdetu behar da.



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



GOZOTEGIA

OKINDEGIA

Bertan egindako
gozotegia eta gozoak!
Labetik
atera
berriak!



Sebero Altube, 2 Tfnoa: 79 89 60 ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

IBARRA Garajea S.L.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua




rain 41 urteko maiatzaren 13an ateratako argazkia duzue gaurkoan, Antzuolan aterata. Bere ezkontza eguna zenez, zuriz jantzita Presentación Lizundia, Bueno jatetxeko etxekoandrea. Egun horretan ezkondu zen Agustin Arregirekin, Bueno baserriko semearekin. Ezkerrean dagoen emakumezkoa, M^a Angeles Lizundia zen, Presenen ahizpa, beste hirurak berriz, Abadiñoko lehengusinak.

Atzean beltzez jantzitako andrazkoa Ana Zubizarreta zen, Agustin Arregiren ama; ondoko txapelduna, aita, Jose Arregi.

Poza eta zorigaitza askotan elkarrekin etortzen dira eta egun horretan halaxe gertatu zen. Antzuolako Ondarreko tabernan bazkaltzen zeudela, ondoezik sentitu zen Agustin Arregiren ama, Ana Zubizarreta, eta bertan oheratu behar izan zuten. Handik bi egune-

ra hil zen.

Dena den, bizitzan aurrera egin beharra dago. Ezkonberriak Arrasatera bizitzera etorri eta hurrengo urteko otsailaren 5ean Bueno jatetxea zabaldu zuten, lehen Txapel zena. Gaur egun, Bueno jatetxea taberna da bakarrik, baina Arregitarrek jatetxe berria dute, Buenuena izenekoa, Roneoko etxebizitzetako plazan, aurtengo Errege Egunean zabaldutakoa.



Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE

LIZARRALDE


KIROLAK



BIZIKLETA MUNDUKO MERKATU ZABALENA!

Bolibar Dokorea, 5
ARRASATE • Tfnoa: 79 91 47


Olakua, 16
OÑATI • Tfnoa: 78 29 86



MARMOLAN

**MARMOLAK
HARRIAK
GRANITOK**

Bidekurtzeta, 1 - 20.500 ARRASATE - Tfnoa: (943) 77 08 30



Bainuak
Eskailterak
Moldurak
Errotulazioa
Enzimerak
Eixaurreak
Hilariak
Panteoiak
Tximiniak

• MARMOL NAZIONALAK.
• INPORTAZIOKO GRANITOKAK:
Hegoafrika, Finlandia, Brasil, India
ciabarrukoak.

Gida 96

Arrasate
Aretxabalela
Estortatza
Leintz-Gatzaga

**Gida 96rako
GEHIGARRIA**

**Gida 96rako zuzenketak,
empresa berriak eta
autobus ordutegien azken aldaketak**

ZUZENKETAK

ARRASATE

◆ JANTZIDENDAK

BENETON Maialako Errabala, 13 79 50 78
79 50-49

◆ MARGOAK

GARBILAN PINTOREAK Santamaina, 24-2.Etk. . . 79 71 33
GARBILAN PINTOREAK

◆ OINETAKO KONPONKETAK

LUMA Ferreras, 42 79 45 03
79-12-33

BERRIAK

◆ APAREJADOREAK

OLABE LIZAUR, MIGEL Zarugalde, 12 79 13 38

◆ BANKETXEAK

LA CAIXA Garibai Etorbidea, 7/g 79 59 00

◆ BAZARRAK

COMERCIO CENTRO Cien Oñate, 23 79 78 27

◆ BIDAIAK

BARCELO BIDAIAK Maialako Errabala, 33 79 70 11

◆ BIZIKLETAK

LIZARRALDE KIROLAK Bolibar Dokorea, 5 79 91 47
TANDEM CICLISMO Zarugalde, 8-behea 79 56 38

◆ C-D TRUKE-KLUBAK

CD MANIA Maialako Errabala, 21 79 79 15

◆ ITURGINTZAK

EGIA ITURGINTZA Saliuente Plaza, 8 behea 79 97 48

◆ JANTZIDENDAK

AYLA Maialako Errabala, 31 79 90 31

◆ JATETXEAK

BUENIENA Jokin Zaitegi, 8 79 79 60
HILARION Larrea, 5 77 01 69

◆ LANTEGIAK

BIURTU, S.A. Zaldispe, 9 79 12 79

◆ MARMOLDEGIAK

MARMOLAN Bidekurtezeta, 1 77 08 30

◆ OKINDEGIAK

MENDIZABAL Sebero Alubea, 2 79 89 60

◆ TABERNAK

ARROGOL Zarugalde, 28 79 06 40

AUTOBUS ORDUTEGIEN AZKEN ALDAKETAK

BERRIAK

Donostia-Soraluze-Bergara-Arrasate-
Aretxabaleta-Eskoriatza-Gasteiz

Gasteiz-Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate-
Bergara-Soraluze-Donostia

Asteleheneetik ostiralera (lanegunak)

Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate
6,20 ⁽¹⁾	6,25	6,30
8,05	8,10	8,20
13,05	13,10	13,20
-	-	14,20 ⁽²⁾
19,05	19,10	19,20

Larunbata (lanegunak)

Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate
8,05	8,10	7,20 ⁽²⁾
13,05	13,10	8,20
-	-	13,20
19,05	19,10	14,20 ⁽²⁾
		19,20

Igandea eta Jaiegunetan

Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate
9,35	9,40	9,50
19,05	19,10	19,20

⁽¹⁾ Irteera Eskoriatzatik ⁽²⁾ Irteera Arrasateetik

Pesak ordutegien informazio eta bezeroen arretarako, telefono berri bat jartzen du zure esku: 902 10 12 10

Larunbatak (lanegunak)

Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza
9,30	9,35	9,40
19,15	19,20	19,25

Igande eta Jaiegunetan

Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza
19,15	19,20	19,25

Oharra: Ordutegi berri hau martxoaren 4tik aurrera jarriko da martxan.

ZUZENKETAK

Eibar-Bergara-Oñati-Arrasate-
Aretxabaleta-Eskoriatza


Asteleheneetik ostiralera-Larunbatak- Igande eta Jaiegunetan

Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza
20,60 21,20	21,00 21,25	21,10 21,30

Z E R N A H I A G O ?

Mikel Lizarralde**“Lizarralde Kirolak” dendakoa**

- **Mendiko ala errepideko txirrindua?** Errepidekoa.
- **Zenbat bizikleta dituzu dendan?** 120ren bat.
- **Egunero saltzen duzu bizikletaren bat?** Ez, baina udaberrian eta udaran bai.
- **Bizikleta garestiena eta merkeena?** Garestiena 500.000 pta. ingurukoa eta merkeena 15.000koa.
- **Zeren arabera aldatzen da prezioa?** Materialaren arabera. Titaniozkoak garestienak dira.
- **Zergatik utzi zenion bizikletan ibiltzeari?** Zorte txarra eduki nuelako. Pena handiz utzi nuen.
- **Txirrindulari gustokoena?** Gewis taldeko Jon Odriozola oñatiarra.
- **Indurain ala Olano?** Indurain.
- **Egin duzun etaparik gogorrena?** Asturiasko Biran egin nuen bat: bidea elurrez beteta zegoen.



- **Izan duzu inoiz bizikleta istripurik?** Bai, asko, baina larririk bat ere ez.
- **Oporretan joateko hondartza ala mendia?** Hondartza.
- **Tabernak ala diskotekak?** Tabernak.
- **Erabiltzen duzu betaurrekorik?** Bizikletan ibiltzeko bakarrik.
- **Maiteminduta zaude?** Bai.
- **Hirian ala herrian bizi?** Hirian.
- **Joan zara sagardotegiren batera?** Oraindik ez.
- **Pelotari bat?** Arretxe.
- **Praka bakeroak ala panazkoak?** Bakeroak.
- **Kaltzontzilo motzak ala luzeak?** Motzak.
- **Dutxatu ala bainatu?** Dutxatu.
- **Baserriko ogia ala normala?** Baserrikoa.
- **Joaten zara eskiatzera?** Gutxi, duela urtebete joan nintzen azkenekoz.

96ko EZKONGAIK

- BAYON (Donostia) Andregaiaren jantzia
- TAYLOR-HARRODS (Gasteiz) Senargaiaren jantzia
- FOTO KIÑU (Bergara) Ezkontzako argazki erreportaia
- ETXEBERRIA ERLOJU TA BITXITEGIA (Bergara) Urrezko eraztunak eta zilarrezko 13 erresak
- IKER SUKALDEA ALTZARIAK (Arrasate) Sukalde mahaia eta aulki bilduma
- BERRIAK PERTSIANAK (Eibar) Etxerako osagarrien bilduma
- CODORNIU Ezkontzarako Cava

- OCASO ASEGUURAK (Eibar-Beasain) Ezkongaiendako etxe eta bizitza aseguroa
- KIMETZ Azpeitia Ezkongaien ile apainketa
- ARKAUZ ALTZARIAK (Aretxabaleta) Koltxoia eta xaflazko oinarriidun bilduma.
- EROSKI BIDAIAK Kanarietara astebeterako bidaiak
- ETXEBARRIA (Azpeitia) Mahai tresneria, baxera eta kristaleria
- LASA JATETXEA (Bergara) 4 lagunendako ezkontza bazkaria edo afaria.
- IBARPLAS (Itziar) 50.000 pezetako txartela
- IRIS LORADENDA (Azkoitia) ezkontza eguneko lore apaingarriak



1997ko martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu ahalik azkarren zuzenbide hauetako batera:

HERRI IRRATIA-RADIO POPULAR

Garibai, 19 • Donostia

1.849 postakutxatila Donostia.

HERRI IRRATIA LOIOLA

Azpeitia

26 postakutxatila • Azpeitia.

Senargaia (Izen deiturak):Tef. zka.:

Kode:Herria:Helbidea:

Andregai (Izen deiturak):Tef. zka.:

Kode:Herria:Helbidea:


Ezkontza eguna (gutxi gorabehera):

· ESAERA ·

“Emakumeek bide bakarra dute gizonetakoak zintzoagoak izan daitezen, ahalik eta gehien gogaitarazi, bizitzeko interesa galdu dezaten”


WILDE

· JEROGLIFIKOA ·



Asko edan al zenuten bart?

· GURUTZEGRAMA ·



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Baztertu. 9. Umea denaren nolakotasun. 10. Alfabeto grekoko 17 letra. 11. Guraria, desira. 12. (Ald.) Koarto, areto. 13. Mahatsetik lortzen den edari. 15. Arrantza egiteko erabiltzen da. 16. (Ald.) Lerden. 18. Salerosle bati erosten diona.

Bertikalak 1. Valentin, Tai-Chi irakaslea. 2. Etiopiako ibaia. 3. Zerbait erretzean sortzen da. 4. Otearen lore. 5. Sudurretik hartzen den tabakoa. 6. Apetitu. 7. Ezer ere ez. 8. Miguel, Bizkaiko idazle eta filosofoa. 12. (Ald.) Beraz. 14. Atzizkia. 17. Donostiako disketxea.

· HOROSKOPOA ·

Aries Sudurra gorri-gorri jartzen zaitu gezurak esaten dituzunean.

Taurus Tontokeriak barra-barra esaten dituzu. Ezta?

Gemini Barriketa larregi egiten duzu. Besteei entzutea komeni zaizu.

Cancer Zoaz zinera, baina norbaitekin. Bakarrik ibiltzea ez zaizu komeni.

Leo Kendu burutik herritik kanpora joateko asmoa.

Virgo Zuk nahi izanez gero, martxo hilabete zoragarria izan daiteke.

Libra Zaindu eztarria, ez erre eta kirola egin.

Scorpio Zoritxarra uxatu nahi baduzu sorginen batekin harremanetan jarri.

Sagitaris Zergatik zara hain ozpiña? Lagunak galtzeko arriskua duzu.

Capricorn Noiztik ez duzu etxeko gonbidapenik jaso?

Aquarius Ez jantzi arropa gorririk, jendeak gaizki pentsatu dezake eta

Piscis Bizkarrean dituzun marka horiek... nork egin dizkizu?

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: **CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA

Gure Objektibotik: Hauteskundeen emaitzak kazetarien ahotan

Jon Iñaki Lasa bere eztabaida-programarekin dator berriz ere ostegunean gaueko 9.30etan. Oraingoan hauteskundeen emaitzak eztabaidatuko ditu lau kazetarikin batera. Egin egunkariko, Iñaki Altuna, politika saileko burua; Egunkariako Luis Fernandez; EHUko Kazetaritza fakultateko Edorta Arana eta Herri Irratiko Alberto Gorritiberea. Gonbidatuek hauteskundeetako emaitzak aztertu eta gogoeta egingo dute.



PROGRAMAZIOA



8 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

9.30etan
Astebete
Gaia: "Ekintza Positiborako Udal-Plana"
Gonbidatuak: Begoña Fernandez, Ermuko Aukera Berdintasunerako teknikaria, Sagra Lopez, Egizaneke partaideia, Asun Ibabe, Emakumeen Asanbladakoa eta Jone Astigarraga, Famili eta Gizarte Heziketarako zentrukoa.

11 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

12 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

13 Asteazkena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Nor Nori Rock musika saioa

14 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan

"Gure Objektibotik"
Gaia: Hauteskundeen ondorengo gogoeta

15 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

KOMIKIA



Zoguzar.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Jeroglifikoak:

14. Ri. 17. Iz.
7. Tur. 8. Unamno. 12. (ald.) Adab.
Ke. 4. Ojalora. 5. Rape. 6. Asegale.
Bertikalak: 1. Zurbano. 2. Omo. 3. Niaril. 18. Bezero.
Aleg. 13. Ardo. 15. Amu. 16. (Ald.)
tasun. 10. Ro. 11. Apea. 12. (Ald.)
Horizontalak: 1. Zokoratu. 9. Ume-

Etxebizitzak

- **Lizarran 98 m²ko pisua salgai.** Gasturik gabe-koa. Tfnoa: 79 11 02.
- **Jose Luis Iñarra kalean garaje plaza** alokatzen dugu. Tfnoa: 79 36 79.
- **Etxea erosiko nuke.** Tfnoa: 77 00 77. Antonio.
- **Gela bat alokatzen da bi ohekin.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua alokagai** ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Gauko 9etatik aurrera.
- **Bikote bat pisu bila dabil.** Tfnoak: 77 11 70 edo 72 60 62. Gaueko 9etatik aurrera. Agurtzane.
- **Pisua salgai Makatzenan.** Osorik berriztua, berogailuaz. Ganbara, 3 logela, eguzkitsua... Tfnoa: 79 07 64.
- **Bizkaia etorbidean pisua alokatzen da.** Tfnoa: 77 14 24 / 76 17 38.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan.** Tfnoa: 79 99 72.
- **Etxebizitza salgai, Uribe auzoan.** Tfnoa: 79 70 37. 7etatik aurrera.

Lana

- **Neska gaztea gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 63 18.
- **Ileapaindegian** diplomatua lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 63 18.
- **Neska bat garbitak** (etxeak, bulegoak, lokal komertzialak, tabernak...) edo umeak zaintzeko prest Tfnoa: 79 85 40.
- **Neska prest pertsona nagusiak** zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 87 47.

- **Etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 77 07 97.
- **Emakume euskaldunak** eta esperientziadunak etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 56 81.
- **Emakumea prest** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 73 83.
- **Pertsona euskalduna** behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin gaueko 8etatik aurrera. Tfnoa: 77 13 30.
- **Emakumea prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska gaztea mekanografian** titulatu eta informatikako ezagupenekin (Datu basea, Word-Perfect, MS-Word, Lotus). Tfnoa: 79 84 31.
- **Emakumea gertu umeak** zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 76 45.
- **Andra gereontologian** diplomatua eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Enpresa zientzietan** lizentziatuak matematika eta kontabilitateko klase partikularrak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 16 19.
- **Kontzertuen iluminaziorako**, 25 urtetik gorako, gidatzeko agiriak eta 2 urteko esperientzia duen pertsona behar da. Tfnoa: 79 67 25.
- **Neska esperientziadunak** umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 53 57. Gaueko 9etatik aurrera.
- **Neska gertu umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17.
- **Euskaraz, ingelesez eta gaztelaraz** edo beste hizkuntza batzutan ipuin pertsonalizatuak egiten dira. Tfnoa: 79 47 54.
- **Marrazketa diedrikoaren klaseak** jasoko nituzke. Euskaraz ahal bada. Tfnoa: 79 32 10. Iratxe.
- **Ileapaindegian diplomadun** neska esperientziaduna lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81.

Salerosketak

- **90 eta 80 oheak salgai.** Laminazko egurrekin, eta logelarako armairua. Tfnoa: 79 24 51.
- **Lapurren aurkako alarma salgai.** Denda edo tabernarako egokia. Tfnoa: 79 65 31.
- **la berria dagoen 50 litroko berogailu** elektriko salgai oso prezio onean. Tfnoa: 79 66 24. Egurdietan edo gauetan.
- **Derby Copa motorra salgai.** (50 cc, 4 martxa). Gorria. Prezio ona. Tfnoa: 79 66 24. Egurdietan edo gauetan.
- **Liberty ziklomotorea salgai.** la berria eta prezio onean. Tfnoa: 79 66 24. Egurdietan edo gauetan.
- **Lur zati bat erosiko nuke inguru honetan.** Tfnoa: 79 78 74. Pedro Etxeandia.
- **Yamaha 850 cc motorra salgai.** SS-AL. 1.800 kilometroekin. Tfnoa: 79 83 75.

- **Alfa Romeo Sprint 1.500** kotxe deportiboa salgai. Gorria. Prezio eta egoera ezin hobea. Tfnoa: 79 38 58. Alex.
- **R-9 GTL autoa salgai.** SS-L. 125.000 pta. Tfnoa: 79 65 83. Juanjo

- **Egoera onean dagoen kontrabaxua** erosiko nuke. Tfnoa: 77 13 86. Utzi mezua.

Denetarik

- **Play-Back jaialdiaren gaueko saioa grabatuta badaukazu,** dei egidazu mesedez. Tfnoa: 79 79 28. Placi.
- **Pultsera bat galdu da** Erguin eta Erdialdeen bitartean. Urrezkoa da, balio handikoa. Dei egin lan orduetan. Tfnoa: 79 15 15.
- **Arrasatek Gasteiza goizeko 8etan** egunero kotxez joan nahi baduzu dei egin 79 95 35 tfnora. Rakel.

Aste Gazte

Lana

- Osakidetzak, administrari laguntzaileak izan ezik, beste lanpostu guztien aurkezpen luzapena egin du martxoaren 23ra arte.
- Cintruénigoko Udalak lorazain bat eta kamioi gidari bat behar du. Epea: martxoak 25.
- Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateak, familia langile baten lanpostua kaleratu du. Epea: martxoak 25.

Bekak

- Hezkuntza, Unibertsitate

eta Ikerketa sailak, 96-97 iker-tzaileak prestatzeko beken deialdia egin du. Doktoradutza-aurrereko beketarako programa: Doktoradutza tesia egin nahi duten goi-mailako titulodun unibertsitari guztiei zuzenduta. Zientzia, teknologia eta humanitate arloetako gaietan. Espainiako edo atzerriko unibertsitateetan zein ikerketarako zentro publiko edo pribatuetan. Bekaren iraupena 12 hilabetekoa izango da, urtero berritu ahal izango da, lau urte arte gehienez. Epea: martxoak 25.

• Ramón Areces Fundazio-

ak”, Europako Kom.ko Ekonomia eta Zuzenbideari buruzko ikasketen zabalkuntza atzerrian egiteko beken deialdia egin du. Lizentziatuei zuzenduta. Ingelesa edo destinoko herriaren hizkuntza menperatzea eskatzen da. Epea: martxoak 29.


• “Colegio de España en Paris” eta “Argentaria Fundazioak”, Parisen Museologia arloan burutzeko lau beka kaleratu dute, lizentziatu gazteei zuzenduta. Epea: maiatzak 20.

Lehiaketak

• Beasaingo Udalak, 1996 Loinatz jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa. Epea: martxoak 29.

“Zahartu gara baina gorputzak rock & rolla eskatzen digu”

DR. DESEO. EGUNKARIA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

RK ^ UZ



altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
 - Liderrak muntaian
- Betiko muntaiak



FAGOR



Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 97



Aretxabaleta

Galaxy



*Zatoz eta
proba ezazu!*

MUGARRI

